



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 14a

83. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzekoa, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, kargudun publikoei administrazio-zehapenak ezartzen dizkiena. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (29. or.).

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

- Lege proposamena, kanabis-erabiltzaileak arautzen dituena. Osoko Bilkurak onetsia (30. or.).
- Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzaren sare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (37. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin koordinatuz Lizarrako hirian turismoaren paradore nazional bat egiteko proiektuaren berrebaluazioa. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (38. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Etxauzia frantziar elkarteari 80.000 euro oparitzeko aurreikuspena. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (38. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzari eskualda diezazkion enplegu arloko eskumenak eta, horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua Garapen Ekonomikoaren mende egotera igaro dadin. Mozioa erretiratzea (39. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea**

#### AURKIBIDEA

Atarikoa

I. TITULUA. Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA. Foru legearen xedea, printzipioak eta definizioak

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Printzipioak.

3. artikulua. Definizioak.

II. KAPITULUA. Foru legearen esparrua

4. artikulua. Aplikazio esparrua.

II. TITULUA. Aplikatzekoak diren xedapenak eta neurri orokorrak

5. artikulua. Berdintasuna, autonomia pertsonala eta bizimodu beregaina bermatzeko neurriak.

6. artikulua. Irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzak.

7. artikulua. Irisgarritasun unibertsalaren kudeaketa eta erregelamenduzko garapena.

8. artikulua. Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginaren txostena.

9. artikulua. Diskriminazioaren aurkako neurriak.

10. artikulua. Ekintza positiborako neurriak.

11. artikulua. Sustapena, bultzada eta parte-hartzea.

12. artikulua. Betetzea eta kontrola.

13. artikulua. Irisgarritasunaren Nazioarteko lkurra.

III. TITULUA Xedapen berariazkoak.

I. KAPITULUA. Irisgarritasuna lurraldean.

14. artikulua. Irisgarritasuna erabilera publiko-hirigune publikoetan.

15. artikulua. Ibilbideak.

16. artikulua. Aparkalekuak.

17. artikulua. Urbanizazio elementuak.

18. artikulua. Hiriko hornigarriak eta haurrentzako parkeak.

19. artikulua. Erabilera publikoko naturaguneak.

20. artikulua. Seinalizazio eta informazio irisgarria.

II. KAPITULUA. Irisgarritasuna eraikuntzan.

1. atala. Erabilera publikoko eraikinak.

21. artikulua. Irisgarritasuna erabilera publiko-erakinetan.

22. artikulua. Eraikinetan sartzeko bideak.

23. artikulua. Komunikazio horizontala eta bertikala.

24. artikulua. Mugikortasun bertikala.

25. artikulua. Komunak.

26. artikulua. Espazioen erreserba.

27. artikulua. Altzariak eta informazio elementuak.

2. atala. Titulartasun pribatuko etxebizitza-erakinak.

28. artikulua. Irisgarritasuna titulartasun pribatuko etxebizitza-erakinetan.

3. atala. Informazioa, seinalizazioa eta segurtasuna

29. artikulua. Informazioa, seinalizazioa eta segurtasuna.

4. atala. Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak erreserbatzea.

30. artikulua. Etxebizitza irisgarriak erreserbatzea.

5. atala. Balio historiko-artistikoa duten eraikinak.

31. artikulua. Balio historiko-artistikoa duten eraikinak.

III. KAPITULUA. Irisgarritasuna garraioan.

32. artikulua. Irisgarritasun baldintzak errepideko garraio publikoan.

33. artikulua. Garraiobideetan irisgarritasuna ezartzeko plana.

34. artikulua. Ibilgailu automobiletarako aparkatxartela, mugikortasun urrituko desgaitasuna duten pertsonentzat.

35. artikulua. Ekintza positiborako neurriak garraioan.

IV. KAPITULUA. Irisgarritasuna herritarren eta Nafarroako administrazio publikoen arteko harremanetan.

36. artikulua. Herritarren eta Nafarroako administrazio publikoen arteko harremanak.

37. artikulua. Erregistroko eta herritarren arretarako laguntza bulegoetako langileen prestakuntza.

V. KAPITULUA. Irisgarritasuna komunikazioan, webguneetan eta gailu mugikorretarako aplikazioetan.

38. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak komunikazioan.

39. artikulua. Hedabide sozialak.

40. artikulua. Irisgarritasuna Nafarroako sektore publikoko webguneetan eta gailu mugikorretarako aplikazioetan.

VI. KAPITULUA. Irisgarritasuna produktu eta zerbitzuetan.

41. artikulua. Irisgarritasun baldintzak produktuetan.

42. artikulua. Irisgarritasun baldintzak zerbitzu publikoetan.

VII. KAPITULUA. Irisgarritasuna kultur, kirol eta aisialdi jardueretan.

43. artikulua. Kultur, kirol eta aisialdi jardueretako irisgarritasun baldintzak.

VIII. KAPITULUA. Irisgarritasuna enpleguan.

44. artikulua. Enplegua.

45. artikulua. Enplegurako prestakuntza.

IX. KAPITULUA. Irisgarritasuna hezkuntzan.

46. artikulua. Hezkuntzarako eskubidea.

47. artikulua. Unibertsitateko hezkuntzaren arloko neurriak.

48. artikulua. Irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren arloko prestakuntza.

X. KAPITULUA. Irisgarritasuna Justizia Administrazioan.

49. artikulua. Irisgarritasun baldintzak Justizia Administrazioan.

IV. TITULUA. Irisgarritasun unibertsala eta pertsona ororentzako aukera-berdintasuna sustatzeko Kontseilua.

50. artikulua. Irisgarritasun unibertsala eta pertsona ororentzako aukera-berdintasuna sustatzeko Kontseilua.

V. TITULUA. Arbitrajea eta bitartekaritza.

51. artikulua. Arbitrajea.

52. artikulua. Arbitraje sistema onartzea eta hari uko egitea.

53. artikulua. Arbitraje prozedura.

54. artikulua. Bitartekaritza.

VI. TITULUA. Zehapen araubidea

55. artikulua. Zehapen araubidea.

Lehen xedapen gehigarria. Foru lege honetan xedatutakora egokitzeko jarduketa plana.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki entitateek egokitze plan integralak onestea.

Xedapen iragankor bakarra. Erregelamenduzko garapen indarduna.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege hau garatzeko gaikuntza.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

## ATARIKOA

## I

Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren printzipioetako bat irisgarritasuna da; konbentzio hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2006ko abenduaren 13an onetsi zuen, Espainiako Estatuak 2007ko abenduaren 3an berretsi, eta 2008ko maiatzaren 3an hartu zuen indarra. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen ikuspegian eredu soziala finkatzea ekarri zuen Konbentzioak, eta, horrekin batera, desgaitasuna dutenak botere publikoek bermatu beharreko eskubideak dituzten pertsonatzat hartzea, eskubide horietaz benetan eta osotara baliatzeko aukera izan dezaten. Desgaitasunaren ikuspegi asistentziala behin betikoz alde batera uztea ekarri zuen, hortik aurrera gaiari giza eskubideetan oinarrituta heltzeko: desgaitasuna duten pertsonen eskubidedun subjektuen izaera integrala eman zien, eta ezarri haien eskaerei eta beharrei erantzun behar zaiela beste herritar guztien aukera berdina izan ditzaten.

Konbentzioaren Atarikoak garbi aitortzen du nolako garrantzia duen arlo hauetarako irisgarritasunak: ingurune fisiko, sozial, ekonomiko eta kulturala, osasuna, hezkuntza, informazioa eta komunikazioak. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu beregaina izateko eta bizitzaren esparru guztietan aktiboki parte hartzeko, irisgarritasunak ez izatea traba da eskubide eta askatasun horietaz baliatzeko.

Irisgarritasun unibertsala hau da, finean: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoen eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Printzipio horrek “diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinuaren” estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanekin egin beharreko arrazoizko egokitzapenarako.

2010eko martxoaren 25ean, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea. Lege horrek oztupo arkitektonikoen ezabaketaren kontzeptu klasikoa gainditu, eta eredu berri baten alde egin zuen, xede honekin: pertsonen garapen erabatekoa eta librea bermatzea, bai eta irisgarritasuna ere pertsona ororentzat, ingurune fisikoan, komunikazioan eta zerbitzuetan, bereziki irisgarritasun behar handiagoak dituztenentzat, hala nola desgaitasunak dituztenentzat, zaharrentzat edo aldi

baterako bada ere ingurunearekin harremana izateko zailtasunak dituztenentzat.

5/2010 Foru Legeak indarra hartu ondoren, Espainiako Estatuak abuztuaren 1eko 26/2011 Legea aldarrikatu zuen, araudi-egokitzapena egiteko Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziara; lege horren azken xedapenetako bigarrenak testu bategin bat egiteko agindu zuen, bertan lege hauek erregularizatu, argitu eta harmonizatzeko: apirilaren 7ko 13/1982 Legea, Desgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzeari buruzkoa; abenduaren 2ko 51/2003 Legea, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna, diskriminazio eza eta irisgarritasun unibertsala lortzeko; eta abenduaren 26ko 49/2007 Legea, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteen eta zigorren araubidea ezartzen duena. Lege horiek bateratzeko lanaren erreferentia Nazioarteko Konbentzioa izan zen, eta emaitza, berriz, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duena, aipatutako hiru legeak berariaz indargabetzen dituena eta hura argitaratu arte egondako arau-sakabanaketari konponbidea ematen diona.

Testu bateginaren arabera, irisgarritasun unibertsala bitarteko bat da, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu beregaina eta bizitzaren esparru guztietan parte hartzeko duten eskubidea egiaz gauzatzeko; horrez gain, botere publikoek hura bermatzeko behar diren neurriak hartu behar dituzte.

Bestetik, Nazio Batuen Konbentzioaren helburuak betetze aldera, Europar Batasunak Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia (2010-2020) landu zuen, helburu honekin hain zuzen: desgaitasuna duten pertsona guztiek modua izan dezatela beren eskubideez baliatzeko eta Europako ekonomian eta gizartean parte hartzearen onura guztiak jasotzeko. Estrategiak lehentasunezko zortzi jardueraren eremu zehazten ditu, eta horietako lehena da ondasun eta zerbitzuetarako –bereziki, publikoak direnetarako–irisgarritasuna, eta desgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko bitartekoen erabilera; berariaz aitortzen du ingurunearen irisgarritasunak aukerak eskaintzen dituela desgaitasuna duten pertsonen trebetasunak eta autonomia hobetzeko, baldintza egokiez hornitzen dituelako lanpostuak, ikastetxeak, establezimenduak, saltokiak, kultureguneak, garraioak, produktuak eta zerbitzuak.

Europako 2010-2020 Estrategiak halaber adierazten du komeni dela irisgarritasuna arautzea komunikazioaren eta informazioaren esparruetan, eta ondasun eta zerbitzuetan, esparru horiek eragin handia dutelako, bai desgaitasuna duten pertsonen autonomian, bai zerbitzuen gainerako erabiltzaileen baldintza beretan parte hartzeko aukerari dagokionez. Azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten bilakaera handia dela eta, horiek kontuan hartzen dituen arau erregulazio berria behar da, gaur egun etengabe presente daudelako gure eguneroko bizimoduan, eta frogaturik dagoelako funtsezkoak direla lege honek biltzen dituen helburuak lortzeko; baina, aldi berean, traba bihurtzen dira populazio osoak haietaz baliatzeko modua izaterik lortu ezean.

Alde horretatik, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, 2016ko abenduaren 2koan, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/2102 (EB) Zuzentaraua argitaratu zen, 2016ko urriaren 26koa, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa. Zuzentaru hori Batasuneko kide diren estatuen legedian txertatzeko transposizioa 2018ko irailaren 23a baino lehen egin behar da; administrazio publikoen atariei eskatzen zaizkien betebeharrak 1494/2007 Errege Dekretuan ordeztu eta hobetu ziren, eta, ondorioz, gutxienez ere bermatzen den irisgarritasun maila Europako EN 301 549 V1.1.2 (2015-04) arauan ezarritakoa da (Espainiako katalogoan, UNE-EN 301549 V1.1.2:2015 araua).

Hauxe da zuzentaruaren abiapuntua: gizarte digitalerantz egiten den aldaketaren joerak informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko bide berriak eskaintzen dizkie erabiltzaileei, eta sektore publikoko erakundeen webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak erabilerrazagoak izatea da haren xedea, irisgarritasuneko betebeharrak komunetan oinarritzen direlako eta elkarreragingarritasuna sustatzen dutelako. Horrela, herritarrek sektore publikoko zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago izanen dituzte webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen bidez, beren eguneroko bizimodua erraztuko duten zerbitzuak eta informazioa lortuko dituzte, bai eta Europar Batasun osoan beren eskubideak baliatzeko modua ere.

## II

Aurreko guztiaren ondorioa da Nafarroak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko foru lege bat behar duela, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta araudi eta estrategia berriekin bat etorriko dena,

helburua izanik aurrera egiten segitzea gizarte inklusiboagoa eta irisgarriagoa lortzeko bidean, pertsonen autonomia bermatzeko, diskriminazioa saihesteko, eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bultzatzeko; batez ere, desgaitasuna duten pertsonena, zaharrena eta, aldi baterako bada ere, ingurunearekin harremanak izateko zailtasunak dituztenena. Irisgarritasuna beharrezkoa dela ulertu behar da, baina ez bakarrik desgaitasuna dutenentzat, baizik eta bizitzaren etapa desberdinetan horren onurak jaso ditzaketan guztientzat.

Foru lege honen lehen helburua da irisgarritasun unibertsalaren transbertsaltasuna bermatzea, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiek eta pertsonen bizi kalitatea efizientziaz lortzeko lanean esku hartzen duten botere publiko guztiek jardun behar dute koordinaturik.

Bigarrenik, foru legeak gai hauek ere sartzen ditu bere xedean: pertsonen autonomiaren sustapena, gizarteratzea eta gizartean parte hartzea, arau berriekin bat, eta kontuan hartuta desgaitasunak nahiz bestelako mugak dituzten pertsonen kopurua gero eta handiago izanen dela populazioa zahartzearen ondorioz; izan ere, kalkulatu da 2020an ehun eta hogeita milioi pertsona inguru egonen direla Europar Batasunean, desgaitasun bat baino gehiago edo desgaitasun arinak izanen dituztenak.

Pertsonen autonomia izan eta gizartean parte hartzea sustatzeko oinarria erabakiak libreki hartzeko eskubidea da, eta, horretarako, informazioa eta baimena formatu egokietan eman behar dira, norberaren zirkunstantziak aintzat hartuz, eta diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuen erregelak betez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten. Alde horretatik, foru lege honek irisgarritasuna arautzen du komunikazioan eta informazioan; bereziki, inguruneen, prozesuen, produktuen, ondasunen eta zerbitzuen eskuratzeari dagokionez, alderdi hori ez baitago behar bezala garatuta indarreko foru araudian, nahiz eta eragin handia izan desgaitasuna duten pertsonen autonomian eta zerbitzu baten gainerako erabiltzaileek berdintasunez parte hartzeko aukerari dagokionez. Hortaz, sentsibilizazio, zabalkunde, hezkuntza eta prestakuntza neurriak ezartzen ditu, Interneteko orriak, ekipoak eta programak pixkanaka irisgarritasun irizpideak txertatzen joan daitezten, eta komunikaziorako eta publizitaterako kanpaina instituzionalek berma dezaten informazioaren irisgarritasuna pertsona ororentzat; guztia, Estatuko eta Europako araudi berriekin bat.

Finean, zaharrek eta desgaitasuna dutenek eskubidea dute bizimodu beregaina izateko eta



bizitzaren esparru guztietan parte hartzeko, eta eskubide horrek lotura estua du botere publikoen betebeharrarekin, alegia, pertsona guztientzako aukera-berdintasuna bermatzearren irisgarritasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko oinarritzko baldintza batzuk ezartzearekin. Oinarritzko baldintza horiek arautzea Estatuaren eskumena da, ezertan ukatu gabe autonomia erkidegoek eta toki entitateek dituzten eskumenak, oinarritzko irisgarritasun-baldintza horiek hobetu edo areagotu baititzakete.

### III

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua eskumen osoa esleitzen dio Nafarroako Foru Komunitateari honako arlo hauek: lurraldearen antolamendua, hirigintza eta etxebizitza; herri-lanak, Estatuaren interes orokorreko izatearen kalifikazio juridikorik ez badute edo horiek egiteak eraginik ez badu Estatuak beste lurralde batzuetan; kultura; ondare historikoa, artistikoa, monumentala, arkitektonikoa, arkeologikoa eta zientifikoa; artxiboak, liburategiak, museoak, hemerrotekak eta kultur gordailutarako gainerako zentroak, Estatuaren titulartasunekoak ez badira; turismoaren sustapena eta antolaketa; kirolaren eta aisialdiaren erabilera egokiaren sustapena; ikuskizunak; gizarte laguntza; garapen komunitarioa, berdintasun politikak, haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika; barne azokak eta merkatuak; adingabeen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 47. artikuluar jarraikiz, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntza arautu eta administratzeko, haren hedapen osoan, maila eta gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, ezertan eragotzi gabe arlo honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoa, agindu horien garapenerako lege organikoek xedatutakoa, Estatuak titulu akademiko eta profesionalen lorpen-, luzatze- eta homologatze-baldintzak ezartzeari dagokionez dituen eskumenak, eta haiek bete eta bermatzeari begira Estatuak daukan goi-mailako ikuskaritza-zeregina.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 49. artikuluar jarraikiz, Nafarroak eskumen osoa du beren ibilbidea osoki foru lurraldean duten trenbide, errepide eta bideetan; baita, neurri berean, bitarteko horietaz baliatuz egiten den garraioan ere. 50. artikulua eskumen osoa ematen dio naturagune babestuen arloan.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 55.1. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen

dio irratien eta telebistaren araubidea lege bidez garatu eta hura betearazteko eskumena, irradi eta telebistaren estatutu juridikoa arautzen duen legean ezartzen den moduan eta kasuetan.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 46. artikulua xedatzen duenez, toki administrazioaren arloan Nafarroari dagozkio bere zuzenbide historikoa dela-eta gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak, bai eta, horiekin bateragarriak izanik, autonomia erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak, udalen autonomia deusetan ukatu gabe betiere.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 58.2 artikuluarrekin bat, Foru Komunitateari dagokio, halaber, nazioarteko itun eta hitzarmenak bere lurraldean betearaztea, Nafarroaren eskumeneko gaiak ukitzen dituzten heinean.

Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen horien guztien erabileraren arlokoak dira irisgarritasun unibertsalerako baldintzak ezartzeko behar diren ekintza publikoak, irisgarritasunak izaera transbertsala baitu. Foru lege hau aldarrikatuz, Nafarroari irisgarritasun unibertsalaren arloko arau-esparru berekia eman nahi zaio, betiere nazioarteko, Europako eta Estatuak jarraibideei egokituia, eta kontuan harturik demografiaren joerak direla bizi itxaropenaren luzapena eta populazioaren zahartzea.

### IV

Foru lege honek honako egitura du: sei titulu, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

I. tituluak foru legearen xedea eta haren oinarri diren printzipioak ezartzen ditu I. kapituluak, bai eta edukia ulertzen laguntzen duten zenbait definizio ere. II. kapituluak foru legearen aplikazio esparruak arautzen ditu. Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legean aurreikusitakoei esparru berriak gehitu zaizkie, hala nola justizia administrazioa, kultur ondarea, kultur, kirol, aisialdi jarduerak eta enplegua. Era berean, irisgarritasun unibertsala arautzen du, 5/2010 Foru Legeak aurreikusi bai baina batere arautu ez zituen esparruetan, adibidez garraioetan edo hezkuntzan, ezertan ukatu gabe esparru horiek erregelamentuz gara litezkeela geroago.

II. tituluak –aplikaziorako xedapenak eta neurri orokorrak–, pertsonen autonomiaren errespetua eta berdintasunerako eta bizimodu beregainerako eskubidea aitortu ondoren, irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren baldintza oinarritzkoak aipatzen dira, pertsona guztiei aukera-berdintasuna

bermatzearen helburua dutenak. Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei esleitutako eskumenak ezertan ukatu gabe, foru legeak berariaz aipatzen du Nafarroan aplikatzekoak direla Estatuko oinarritzko araudian jasotako irisgarritasun- eta diskriminaziorik ezaren baldintza oinarritzkoak.

Nafarroako administrazio publikoek irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzak betetzeko eta kontrolatzeko dituzten betebeharrak hainbat neurriekin indartzen dira: diskriminazioaren kontrakoak, ekintza positiborako neurriak eta sustapen-, bultzada- eta partaidetza-neurriak, irisgarritasun unibertsalaren lorpenean zuzeneko eragina dutenak, bai eta, azken batean, bizimodu beregainaren lorpenean; hori guztia, ezertan ukatu gabe erregelamenduzko garapen bat aurreikustea hori beharrezkotzat jotzen den aplikazio esparruetan.

5/2010 Foru Legean aurreikusi zenez, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginari buruzko txosten aginduzkoak eman beharko dira Nafarroako Gobernuak foru lege proiektuak eta erregelamenduzko xedapenen proiektuak onesteko prozedurretan, eta foru legeak eutsi egiten dio betebeharrak horri; alabaina, halakorik ez da oraingoz bete. Aipatu betebeharrak Nafarroako toki entitateengana zabaltzen da orain.

Era berean, Irisgarritasun Unibertsalaren UNE170001-1 eta 2 arauaren erreferentzia mantentzen da foru legearen erregelamenduzko garapenerako, eta beste betebeharrak gehitzen da; hots, Nafarroako administrazio publikoek neurriak hartu beharko dituztela beren webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasuna handitzen joateko pixkanaka; halatan, jarraitu egiten zaio Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentarauari, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoari.

Berariazko xedapenei buruzko III. tituluaren, irisgarritasuna arautzen da 4. artikuluan aurreikusitako esparruetako bakoitzean.

IV. tituluak Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua arautzen du, eta haren xedea hedatzen du irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna pertsona guztientzat sustatzera, eta ez bakarrik desgaitasuna dutenentzat. Legearen artikulua guztietan islatzen da hedapen hori, kontuan hartu baitira, batetik, populazioaren zahartzea, eta, bestetik, pertsona guztien irisgarritasun beharrianak. Nolanahi ere, ezin zen bestela izan,

zenbait eskubide aitortzen zaizkie nori eta pertsona desgaituaren izaera aitortua dutenei bakarrik, halatan jarraikiz azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duenak, 4. artikuluan xedatutakoari.

V. tituluaren irisgarritasun unibertsalaren arloko arbitrajea eta bitartekaritza aurreikusten dira.

Azkenik, VI. tituluaren ezartzen da ezen Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan– aurreikusitako zehapen araubidea aplikatuko dela Nafarroan, legegintzako errege dekretu horretan ezarritako moduan.

Lehen xedapen gehigarrian aurreikusirik dago Nafarroako Gobernuak, foru lege honen indarraldia hasi eta sei hilabeteko epean, jarduketa plan bat aurkeztu beharko diola Nafarroako Parlamentuari, irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona ororentzako diseinuaren eskubideari dagokionez egun dauden defizitak zuzentzeko helburuarekin.

Bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten da Nafarroako toki entitateek foru lege honen indarraldia hasi eta urtebeteko epean onetsi beharko dutela irisgarritasunaren arloko jarduketa plan integral bat.

Xedapen iragankor bakarrak dio 5/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenek indarra izaten segituko dutela harik eta foru lege honen erregelamenduzko garapenek indarra hartu arte.

Xedapen indargabetzaile bakarrak Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea esanbidez indargabetzen du. Bestalde, hauek ere indargabetzen ditu: 57/1990 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, garraioetako oztopo fisiko zein sensorialak kentzeko Arautegia onesten duena, eta ekainaren 29ko 154/1989 Foru Dekretua, Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1998 Foru Legea garatu eta aplikatzeko erregelamendua onesten duena. Izan ere, gaiditurik gelditu dira estatu mailan irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzak ezartzen dituzten geroagoko beste arau batzuk direla-eta.

Azken xedapenetako lehenak aldaketa bat egiten du Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 20. artikuluan, desgaitasuna duten pertsonentzat etxebizitza babestuen sustapenetan egin



beharreko erreserbei dagokienez. Etxebizitza erreserbatuen gaur egungo kopurua handitzeko apustua egiten da, batez ere sustapen txikiaren kasuan. Horrela, hemendik aurrera, aski izanen dira hemezortzi etxebizitza, erreserbatutako etxebizitza bat egoteko; lehenago, berriz, hogeita hamahiru etxebizitza baino gehiagokoa izan behar zuen sustapenak. Estatuko oinarritzko legerian ezarritako ehuneko 4ko erreserba-portzentajea ere hobetzen da. Erreserbaren barruan, ehuneko hirua mantentzen da mugikortasunari dagokion desgaitasun larria dutenentzat, zeren etxebizitza erreserbatuen aurreikuspenak sustapenetako proiektu arkitektonikoen irizpen izaten segitu behar baitu, kontuan hartuta haiek izan ohi direla etxebizitzetarako obretan egin behar izaten diren egokitzapen handienak; eta, gainera, obren hasieran egin behar direla. Dena dela, mugikortasunari dagokion desgaitasun larririk duen eskatzailearik ez badago, etxebizitza horiek desgaitasuna dutenentzako erreserbaren ehuneko seian egoten segituko dute.

Azken xedapenetako bigarrenak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman eta behar diren neurriak har ditzan. Azken xedapenetako hirugarrenak legearen indar-hartzea finkatzen du.

## V

Foru lege hau prestatzeko lanetan honakoen parte-hartzea eta aholku-ematea egon da: Nafarroako Gobernuako departamentu guztiak, Desgaitasuna duten Pertsonak ordezkatzen dituzten Entitateen Nafarroako Batzordea, Toki Araubideko Foru Batzordea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Adingabearien Kontseilua, Nafarroako Adinekoen Kontseilua, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Desgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseilua, Nafarroako Kirolaren Kontseilua eta Nafarroako Kultura Kontseilua.

### I. TITULUA

#### Xedapen orokorrak

### I. KAPITULUA

#### Foru legearen xedea, printzipioak eta definizioak

##### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ezartzea, honakoak

bermatzeko beharrezkoak direnak: pertsona guztien eta, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitateko inklusioa eta bizimodu beregaina.

2. Foru lege honetan aitortutako eskubideen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikuluan aipatuak.

##### 2. artikulua. Printzipioak.

Foru lege honek printzipio hauek ditu oinarri:

a) Pertsonaren berezko duintasunaren, norberaren autonomiaren eta norberak erabakiak hartzeko askatasunaren errespetua.

b) Bizimodu beregaina.

c) Diskriminaziorik eza.

d) Desberdintasuna errespetatzea eta desgaitasuna duten pertsonak onartzea, giza dibertsitatearen eta gizatasunaren parte diren aldetik.

e) Aukera berdintasuna.

f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

g) Normalizazioa.

h) Irisgarritasun unibertsala.

i) Diseinu unibertsala edo pertsona ororentzako diseinua.

j) Parte-hartzea eta inklusioa gizaratean, osotara eta egiaz.

k) Elkarrizketa zibila.

l) Errespetua, desgaitasuna duten pertsonen eta, batez ere, desgaitasuna duten haurren nortasunaren garapenarekikoa, eta haien identitatea babesteko eskubidearekikoa.

m) Irisgarritasun unibertsalaren transbertsaltasuna Foru Komunitateko Administrazioaren politika guztietan.

##### 3. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira honako hauek:

a) Irisgarritasun unibertsala: Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasunez

eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Printzipio horrek “diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinuaren” estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da egin beharrekoak diren arrazoizko egokitzapenak ezertan galarazi gabe.

b) Diseinu unibertsala edo pertsona ororentzako diseinua: Jarduera honen bidez, jatorritik pentsatu edo diseinatzen dira, baldin eta hori posible bada, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, lanabesak, programak, gailuak eta antzeko elementuak, halako moduz non pertsona guztiak erabiltzeko modukoak izanen baitira, ahalik eta hedadura handienarekin, egokitzapenik eta diseinu espezializaturik egin beharrik gabe. «Diseinu unibertsalak edo pertsona ororentzako diseinuak» ez ditu baztertuko desgaitasuna duten pertsonen talde partikularrentzako laguntza produktuak, halakorik behar badute.

c) Gizarte inklusioa: Prozesu honen bidez gizarteak denon onerako eta kohesio sozialerako balio konpartituak sustatzen ditu, desgaitasuna duten pertsona guztiak behar diren aukerak eta baliabideak izan ditzaten biritza politiko, ekonomiko eta sozialean, hezkuntzan, lan eta kultur arloan bete-betean parte hartzeko eta gainerako pertsonen bizi-baldintza berak izateko.

d) Aukera berdintasuna: Desgaitasunak eragindako inolako diskriminaziorik, zuzeneko nahiz zeharkakorik, ez egotea da, barne harturik edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, helburutzat edo emaitzatzat duena desgaitasuna duten pertsonen arlo politikoan, ekonomikoan, hezkuntzarenean, gizartean, lanarenean, kulturarenean edo bestelako arlo batean trabak jartzea edo haien indarrik gabe uztea giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak berdintasun-baldintzetan aitortu, gozatu edo erabiltzeko modua.

e) Zuzeneko diskriminazioa: Desgaitasuna duen pertsona batek bizi duen egoera, bere desgaitasuna dela-eta beste batek baino tratatu okerragoa jasotzen duenean antzekoa den egoera batean.

f) Zeharkako diskriminazioa: Zeharkako diskriminazioa dagoela ulertuko da baldin eta lege edo erregelamendu mailako xedapen batek, hitzarmen edo kontratu bateko klausula batek, erabaki alde-bakar batek edo irizpide edo jardunbide batek, edo itxuraz neutroa den ingurune, produktu edo zerbitzu batek, desgaitasuna dela-eta desabantaila eragiten ahal badiu pertsona bati beste batzuen aldean; betiere objektiboki helburu legitimorik ez

badu eta helburu hori lortzeko baliabideak egokiak eta beharrezkoak ez badira.

g) Loturagatiko diskriminazioa: Horrelako diskriminazioa gertatzen da pertsona batek edo bera kide duen taldeak tratatu diskriminatzailea jasotzen duenean beste batekin duen harremanagatik, desgaitasunaren ondorioz.

h) Jazarpena: Gogoz kontrako jokabide oro pertsona baten desgaitasunarekin zerikusia duena, helburutzat nahiz ondoriotzat duena haren duintasunaren aurka egitea edo ingurune beldur-eragilea, etsaitasunezkoa, apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea.

i) Ekintza positiborako neurriak: Berariazko neurriak dira, desgaitasunak eragiten dituen desabantailen saiheste edo konpentsazioan gauzatzeko direnak eta bideratuta daudenak bizkortu edo lortzera bai desgaitasuna duten pertsonen defektuzko berdintasuna, bai biritza politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntzako, laneko eta kulturalaren arloetan haiek osoki parte hartzea ere, desgaitasun mota eta gradu desberdinak aintzat harturik.

j) Bizimodu beregaina: Egoera honetan, desgaitasuna duen pertsonak bere biritzaren gainean erabakitze ahalmena erabiltzen du, eta bere komunitatearen biritzan parte hartze aktiboa du, nortasuna libreki garatzeko eskubidearekin bat; modua dauka non eta norekin bizi nahi duen hautatzeko, gainerakoen baldintza beretan, eta bizimodu zehatz baten arabera biritzeko betebeharririk ez du.

k) Normalizazioa: Printzipio honen arabera, desgaitasuna duten pertsonen berdintasun baldintzetan biritzeko aukera izan behar dute, beste edozein pertsonak eskura dituen leku, esparru, ondasun eta zerbitzu berberak erabiltzeko modua izanda.

l) Arrazoizko egokitzapenak: Giro fisikoa, soziala eta jarrerena desgaitasuna duten pertsonen beharrezko bereizietara egokitzeko behar diren eta egokiak diren aldaketak eta egokitzapenak dira, modu eraginkor eta praktikoa eta neurritz gaineko edo bidegabeko karga ekarri gabe errazten dutenean irisgarritasuna eta partaidetza, eta desgaitasuna duten pertsonen berdintasun baldintzetan eskubide guztiak baliatu edo gauzatzeko gainerako herritarren baldintza beretan.

m) Elkarrizketa zibila: Printzipio honen bitartez, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzen dituzten erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezartzen dutenari jarraituz, desgaitasuna duten pertsonen alorrean garatzen diren politika ofizialak

prestatu eta exekutatzen eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten; betiere, politika horiek bermatu behar dute desgaitasuna duten haurren eskubidea, beren iritzia libreki adieraztekoa beraiengan eragina duten gai guztiei buruz, bai eta beren desgaitasunerako eta adinerako egokia den asistentzia jasotzekoa ere.

n) Desgaitasunaren arloko politiken transbertsaltasuna: printzipio honen arabera, administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez dira mugatzen pertsona hauentzako plan, programa eta ekintza berariazkoetara, barnean hartzen baitituzte izaera orokorreko politikak eta ekintza-ildoak ere, jarduera publikoaren edozein esparrutakoak, betiere desgaitasuna duten pertsonen beharriak eta eskaerak aintzat harturik.

ñ) Desgaitasuna: Egoera bat da, bi faktore hauen arteko interakziotik sortzen dena: batetik, aurreikusitakoaren arabera iraunkorrak izan diren gabezia fisikoak, organikoak, zentzumenezkoak, intelektualak, garapenekoak edo mentalak dituzten pertsonak, eta, bestetik, edozein motatako oztopoak, eragozpen edo traba direnak pertsona horiek gizartean osoki eta eraginkortasunez eta gainerako pertsonen baldintza beretan parte hartzeko.

o) Irisgarritasunaren arloko jarduketa plan integrala: Tresna bat da, zeinaren bidez identifikatu eta planifikatzen baita zer urrats egin behar diren, haren aplikazio esparruan erdiets daitezten foru lege honek eta kasuan kasuko garapen-araudiak ezarritako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak.

## II. KAPITULUA

### Foru legearen esparrua

#### 4. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Nafarroako eskumenen mugapean, honako hauek dira foru lege honen aplikazio esparruak:

a) Urbanizatutako guneko publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak.

b) Garraioak.

c) Komunikazioak eta informazioaren gizartea.

d) Jendearentzat eskuragarri dauden produktuak eta zerbitzuak.

e) Administrazio publikoekiko harremanak.

f) Justizia Administrazioa.

g) Kultur ondarea.

h) Kultur, kirol eta aisialdi jarduerak.

i) Enplegua.

j) Hezkuntza sistema.

2. Aplikazio esparru horiei dagokienez, foru lege honen menpe egonen dira Nafarroan ezarritako pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, lurralde horretan ematen dutenak foru lege honek jasotzen dituen zerbitzuetakoren bat.

## II. TITULUA

### Aplikatzekoak diren xedapenak eta neurri orokorrak

5. artikulua. Berdintasuna, autonomia pertsonala eta bizimodu beregaina bermatzera bideraturiko neurriak.

1. Nafarroako administrazio publikoei dagokie aukera-berdintasuna eta diskriminazio falta egiazkoak eta eraginkorrak izateko beharrezkoak diren irisgarritasun baldintzak ezartzea, pertsona guztiaren autonomia eta inklusioa bermatuz eta, bereziki, desgaitasuna duten pertsonena.

2. Berdintasunerako eskubidea egiazkoa izan dadin, Nafarroako administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak bermatzeko dituzte, eskubideak aukera-berdintasunean erabiltzea egiazkoa eta eraginkorra izan dadin bizitzaren esparru guztietan, arreta berezia eman dezagaitasuna duten pertsonen eskubideak arlo hauetan babesteari: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, osasuna, enplegua, etxebizitza, gizarte babesa, hezkuntza, benetako babes judiziala, mugikortasuna, komunikazioa, informazioa eta kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren eskuragarritasuna, bai eta afera publikoetako parte-hartzea. Babes hori, betiere, titulu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako moduan emanen da.

Era berean, Nafarroako administrazio publikoek arreta berezia emanen diete diskriminazio mota bat baino gehiago jasotzeko arrisku berezia duten pertsona edo taldeei, hala nola neskatuei, mutikoei, emakume desgaituei, zaharrei, genero indarkeriaren biktima diren emakume desgaituei, LGTBI pertsona desgaituei, desgaitasun bat baino gehiago dituzten pertsonen eta gutxiengoetako kide diren pertsona desgaituei.

3. Erabakiak hartzeko askatasuna bermatzeko, informazioa eta baimena formatu egokietan eman behar dira, diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinuaren erregelak betez, haiek irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten. Edozein kasutan, aintzat hartuko dira pertsona bakoitzaren inguruabarrak eta erabaki bakoitza hartzeko gaitasuna, eta bermatu egingen da behar den laguntza emanen zaiela.

4. Bizimodu beregaina izateko eta bizitzaren eremu guztietan osoki parte hartzeko eskubidea sustatzeko, botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte irisgarritasun unibertsala bermatzearren inguruneetan, prozesuetan, ondasunetan, produktu eta zerbitzuetan, garraioan, informazio eta komunikazioetan, barnean direla informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak, eta hedabide sozialak eta jendaurreko edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuetan, bai hirigune bai landaguneetan.

**6. artikulua.** Irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei esleitutako eskumenak ezertan ukatu gabe, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean aplikatzekoak izanen dira Estatuko oinarritzko araudiak irisgarritasunari eta diskriminazio ezari buruz ezarritako baldintza oinarritzkoak.

2. Irisgarritasunari eta diskriminazio ezari buruzko baldintza oinarritzkoen xedea da pertsona guztiei bermatzea aukera-berdintasuna, autonomia pertsonala eta bizimodu beregaina.

3. Irisgarritasunari eta diskriminazio ezari buruzko baldintza oinarritzkoek neurri zehatzak ezarriko dituzte esparru edo arlo bakoitzerako, diskriminazioak prebenitu edo desagerrarazteko, eta desabantailak edo zailtasunak konpentsatzeko.

4. Irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren baldintza oinarritzkoak ezartzeko, desgaitasun mota eta gradu desberdinak hartuko dira kontuan, eta foru lege honen aplikazio esparru bakoitzeko ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen bai hasierako diseinuan bai egokitzapen arrazoizkoetan aplikatuko dira.

Erregulazio hori pixkanaka egingen da hala denborari dagokionez nola ezarritako betebeharren norainokoari eta edukiari dagokienez, eta 4. artikuluan aipatzen diren esparru guztiak hartuko ditu.

**7. artikulua.** Irisgarritasun unibertsalaren kudeaketa eta erregelamenduzko garapena.

1. Nafarroako administrazio publikoek, foru lege honetan jasotako xedapenen erregelamenduzko garapenean, honakoak bete beharko dituzte: Irisgarritasun Unibertsalari buruzko UNE 170001-1 araua. 1. zatia: DALCO irizpideak, ingurunerako irisgarritasuna errazteko, eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko UNE 170001-2 Araua. 2. zatia: irisgarritasuna kudeatzeko sistemak. Beharrezkoa izanen da irisgarritasun globala kudeatzeko sistema bat ezartzea, pertsona guztiei

bermatze aldera aukera berberak izanen dituztela ingurune eraikirako sarbidea izateari dagokionez eta ondasun eta zerbitzuen eskuragarritasunari dagokionez, ahalik eta erabilera-autonomia handienarekin, zein ere den haien adina edo desgaitasun mota.

2. Era berean, Nafarroako administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte, beren webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasuna pixkanaka handitzeko, haiek hautemangarri, erabilgarri, ulergarri eta sendo eginez, halako moduz non bermaturik egonen baita, gutxienez, EN 301 549 V1.1.2 (2015-04) arauaren edo haren bertsio berrienaren pareko irisgarritasun maila eta, nolana ere, Estatuko oinarritzko araudian aurreikusitako irisgarritasun-maila.

3. Nafarroako Gobernuak bermatuko du araudi tekniko egokia garatuko dela eta dagoen araudia berrikusiko dela, halatan ziurtatze aldera ez dela diskriminaziorik egonen teknologia, ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen diseinuetan eta garapenetan; horretarako, lankidetzan arituko da normalizazio- eta egiaztatze-entitate eta erakundeekin eta pertsonen bizi-kalitatea ziurtatzeko zeregina duten eragile guztiekin. Horrekin batera, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuko ditu irisgarritasun unibertsalarekin lotutako arloetan.

4. Nafarroako administrazio publikoek prestakuntza programak sustatu eta irakatsiko dituzte irisgarritasun unibertsalari buruz, eta neurriak hartuko dituzte herritarrak irisgarritasun unibertsalaren betebeharez eta horiek pertsona guztiei dakartzkieten onurez kontzientziazteko.

**8. artikulua.** Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginaren txostena.

Foru lege proiektuak eta erregelamenduzko xedapenetarako proiektuak onesteko prozeduretan, nahitaez erantsi beharko da bertan ezartzen diren neurriek irisgarritasunaren eta desgaitasunaren aldetik duten eraginari buruzko txosten bat.

Nafarroako toki entitateek arau-xedapenak onesteko prozeduretan ere, nahitaez erantsi beharko da txosten hori.

**9. artikulua.** Diskriminazioaren aurkako neurriak.

Diskriminazioaren aurkako neurriek hauxe dute xedea: prebenitzea edo zuzentzea pertsona batek, zuzenean nahiz zeharka, beste batek baino tratu okerragoa jasotzea, antzekoa edo konparagarria den egoera batean; eta, horretarako, zenbait betebehaz ezartzen dituzte, irisgarritasunari,

oztopoak kentzeari eta arrazoizko egokitzapenak egiteko betebeharrari buruzkoak.

Ondorio horietarako, irisgarritasunari buruzko betebehartzat jotzen dira inguruneek, prozesuek, produktuek, ondasunek eta zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak, bai eta diskriminazio ezaren baldintzak ere arau, irizpide eta jardunbideetan, irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona ororentzako diseinuaren printzipioekin bat.

Egokitzapen bat arrazoizkoa baden ala ez den erabakitzeke, foru lege honen 3.l) artikuluan ezarritakoarekin bat, kontuan hartuko dira neurriaren kostuak, neurria ez hartzeak desgaitasuna duten pertsonen ekartzen dizkien diskriminaziozko ondorioak, hura praktikan jarri behar duen pertsona, entitate edo erakundearen egitura eta ezaugarriak, eta finantzabide ofiziala edo beste edozein laguntza eskuratzeko daukan aukera.

#### **10. artikulua.** Ekintza positiborako neurriak.

Nafarroako administrazio publikoek ekintza positiborako neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen alde. Era berean, neurri osagarriak ezarriko dira, kolektibo ahulagoei zuzenduak, diskriminazio handiagoa –askotariko diskriminazioa barne– edo aukera-berdintasun txikiagoa jasateko arriskua dutenei, hala nola desgaitasuna duten emakumeei, desgaitasuna duten LGTBI pertsonen, desgaitasuna duten haurrei, beren autonomiaz baliatzeko edo erabakiak libreki hartzeko laguntza handiagoa behar duten pertsonen eta bazterketa soziala pairatzen dutenei, bai eta landagunean bizi ohi diren desgaituei eta guxtiengo etnikoari.

Ekintza positiborako neurriak izan daitezke laguntza osagarriak eta arau, irizpide eta jokabide onuragarriagoak. Laguntza osagarriak honakoak izaten ahalko dira: laguntza ekonomikoak, laguntza teknikoak, laguntza-zerbitzu pertsonala, zerbitzu espezializatuak eta komunikaziorako laguntza eta zerbitzu osagarriak.

#### **11. artikulua.** Sustapena, bultzada eta parte-hartzea.

Nafarroako administrazio publikoek irisgarritasun unibertsala eta pertsona ororentzako diseinua sustatuko dituzte foru lege honetan deskribaturiko esparruetan; eta eskatuko dute, bestetik, planek eta proiektuek, titulartasun publikokoak izan edo pribatukoak izan, bete dezatela foru lege honetan eta legea garatuko duten erregelamenduetan ezarritakoak.

Horretarako, sustapen-lana eginen da, desgaitasuna dutenek eta haien familiek eta/edo legezko tutoreek, nor bere kasa nahiz beren ordezkaritza-

erakundearen bitartez, parte har dezaten, berengan eragina duten erabakiak proposatzen, prestatzen eta hartzen. Nafarroako administrazio publikoaren betebeharra da, bestalde, bakoitzaren eskumenen esparruan, parte-hartze hori egiazkoa eta eragin-korra izan dadin ziurtatzeko baldintzak sustatzea. Era berean, sustatuko da pertsona horiek presentzia iraunkorra izan dezatela Nafarroako administrazio publikoetako parte-hartze eta aholkularitza organoetan, desgaitasunaren arloko organo berriraketa-kanpaina, baldin eta haien eginkizunek zuzeneko lotura badute desgaitasuna duten pertsonentzat lehentasunezko interesa duten alorretako gaiekin.

Nafarroako administrazio publikoek informazio-jarduerak, sentsibilizazio-kanpainak eta prestakuntza-ekintzak garatu eta sustatuko dituzte, baita aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko beharrezkoak diren bestelako neurriak ere.

Horrekin batera, herritarren arretaren arloan, pertsona guztientzat irisgarria den arreta bermatuko dute soslai profesionalak trebatzea eta funtzio publikoan pixkanaka sartzeari bultzatuko dute.

Informazio eta sentsibilizazio kanpainen irisgarritasunak izan behar dute pertsona ororentzat, eta eskuragarri egonen dira irakurketa errazeko formatuan, braille sisteman, letra handituan, zeinuen hizkuntzan, azpitituluekin edo beste sistema alternatiboetan.

Nafarroako administrazio publikoek araudi tekniko egokia gara dadin bermatu eta babestuko dute, bai eta dagoen araudia berrikuntza bidez segurtatzeko ez dela diskriminaziorik egonen teknologia, produktu, zerbitzu eta ondasunen prozesu, diseinu eta garapenean, eta, horretarako, lankidetzan arituko da desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea ziurtatzeko zereginetan aritzen diren eragile guztiekin. Horrekin batera, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuko ditu irisgarritasun unibertsalarekin lotutako arloetan.

#### **12. artikulua.** Betetzea eta kontrola.

Nafarroako administrazio publikoek zaindu eta egiaztatuko dute beren xedapenak eta erabakiak bat datozeela foru lege honekin eta hau garatuko dute erregelamenduzko arauarekin.

#### **13. artikulua.** Irisgarritasunaren Nazioarteko Ikurra.

1. Produktu, ingurune, prozesu, ondasun eta zerbitzuen irisgarritasuna eta erabilera-aukerak identifikatzearren, irisgarriak direnak Irisgarritasunaren Nazioarteko Ikurraz (INI) seinlatu beharko dira.



2. Produktu, ingurune, prozesu, ondasun edo zerbitzu bat desgaitasun batzuetarako baizik ez bada irisgarria, zein desgaitasunetarako den irisgarria seinalatuko da, dagokion ikurrarekin.

3. Erregelamenduz ezarriko da kasu bakoitzean erabili beharreko sinbologia.

### III. TITULUA Xedapen berariazkoak

#### I. KAPITULUA Irisgarritasuna lurraldean

**14. artikulua.** Irisgarritasuna erabilera publikoko hirigune publikoetan.

1. Erabilera publikoko hiriguneen planifikazioak eta urbanizazioak haien irisgarritasuna bermatu beharko dute, planeamendu orokorraren bidez, garapen planeamenduaren bidez eta hirigintza antolamendurako eta planeamendua betetzeko gainerako tresnen bidez, foru lege honetan eta beronen garapen arauetan ezarritako irizpideekin bat.

2. Hirigintza antolamenduko tresnek, urbanizazio-proiektuek eta obra arruntetarako proiektuek irisgarritasun-baldintzak betetzen direla frogatzeko atal bat eduki beharko dute, kontuan hartuz ukitutako sektoreak nolako lotura duen sektore mugakideekin. Irisgarritasun-baldintzetakoren bat betetzerik ez dagoenean, horren arrazoiak emanen dira, eta arrazoizkoak diren kasuko doikuntzak egin beharko dira.

3. Egun dauden erabilera publikoko hiriguneek –zerbitzu-instalazioak eta hiriko hornigarriak barne– pixkanaka egokitzen joan beharko dute, toki entitateak irisgarritasunaren arloan onesten duen plan integralean jasotako determinazioen arabera. Bestetik, espazio horietan egiten diren esku-hartze guztiek betiere bete beharko dituzte arrazoizkoak diren egokitzapenak.

**15. artikulua.** Ibilbideak.

1. Oinezkoentzako ibilbideak —oinezkoek eta ibilgailuek etengabe edo aldi baterako konpartitzen dituzten eremuak barne—, oinezkoen erabilerarako eremuaren barrenean pertsonen joan-etorrietarako berariazko tokia diren aldetik, edozein pertsonarentzat irisgarriak izan daitezen eta diskriminaziorik gabeko erabilera bermatzeko modukoak izan daitezen diseinatu eta eginen dira.

2. Ondorio horietarako, oinarrizko araudi indardunean xedatutakoa beteko da, foru lege honen erregelamenduzko garapena ukatu gabe.

**16. artikulua.** Aparkalekuak.

1. Ibilgailu automobilak aparkatzeko eremu guztietan, lur azpikoak izan nahiz ez, erabilera publikoko bide edo eremuetan baldin badaude, desgaitasuna dutenentzako aparkatxartela lortu duten pertsonak erabiltzeko toki behar bezala seinalizatuak erreserbatuko dira, modu iraunkorrean eta oinezkoentzako sarbideetatik ahalik eta hurbilen, betiere foru lege honen 34. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta foru edo toki araudian araututako erabilera-baldintzak edo eskubideak ukatu gabe, baldin eta hauek onuragarriagoak badira.

2. Nafarroako udalerriek ordenantza bidez zehaztuko dute zein diren jarduera zentroaren izaera duten hiriguneko eremuak. Eremu horietan, gutxienez toki bat erreserbatuko da berrogei tokiko, edo handik beherako kopuru bateko. Horrek ez du ukatuko Estatuko oinarrizko legerian ezarritako toki irisgarrien erreserba.

3. Desgaitasuna duten pertsonen erabilerarako erreserbatutako tokiek erregelamenduz ezarritako zehaztapenak eta neurriak bete beharko dituzte. Toki horietarako oinezkoen sarbideek irisgarriak izateko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

**17. artikulua.** Urbanizazio elementuak.

1. Urbanizazio lanen elementu guztiak dira urbanizazio elementu, hala nola zoladura, ur-hornidura eta -banaketa, saneamendua, estolderiako sarea, energia elektrikoa, gasa, telekomunikazioak hartu eta banatzeko sistemak, kaleko argiak, bide segurtasuna eta bideetako seinaleak eta lora-tegiak, bai eta hirigintza-antolamenduko tresnetan jasotako aurreikuspenak gauzatzen dituzten elementu guztiak ere.

2. Oinezkoentzako eremuetan kokatu behar diren urbanizazio elementuen diseinuan, kokapenean eta mantentze-lanetan, pertsona guztien segurtasuna, irisgarritasuna, autonomia eta diskriminazio eza bermatuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

3. Erabilera publikoko espazioetan behin-behineko jartzen diren elementuak halako moduz kokatu eta seinalatu beharko dira non segurtasuna eta irisgarritasun unibertsala bermatuko diren.

4. Bide publikoan traba egiten duten obretan, behar diren babes- eta seinalizazio-bitartekoak jarriko dira, ahal dela ibilbide irisgarriak inbaditu gabe, eta ordezkio ibilbide edo pasabideak jarri beharko dira.



**18. artikulua.** Hiriko hornigarriak eta haurrentzako parkeak.

1. Hiriko hornigarriak erabilera publikoko hiriguneetan dauden elementu higigarri guztiak dira, urbanizazio edo eraikuntza elementuen gainean edo haiei itsatsita jarrita daudenak, hala nola zutoinak, seinalizazio-zutoinak, telefono kabinak, paperontziak, gutunontziak, jarlekuak eta antzeko beste edozein elementu.

2. Pertsona guztiek modu autonomo eta seguruan erabiltzeko moduan diseinatu eta kokatu behar dira erabilera publikoko hiri-hornigarrien elementu guztiak, igartzeko eremua inbaditu gabe, ez oinezkoen ibilbideen zoruaren parean ez altueran.

3. Trafikoko seinaleak, semaforoak, argiztapeneko zutoinak edo seinalizaziorako beste elementu bertikal guztiak, oinezkoentzako ibilbide batean kokatuta daudenak, pertsonen zirkulazioa ez oztopatzeko eta erosotasun handienarekin erabiltzeko moduan diseinatu eta kokatu behar dira.

4. Erregelamenduz ezarriko dira elementu horiek irisgarri eta ulergarritzat jotzeko bete beharreko parametroak eta ezaugarriak; edozein kasutan, gutxienez alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan: seinaleen azpiko altuera libre, espaloietako kokalekua eta botoien eta eskuz eragin beharreko mekanismoen kokalekua, bai eta zenbait teknika erabiltzea ere, hala nola soinuak seinaleak, irakurketa erraza, piktograma homologatuak erabilera eta braille sistema, bidezkoa bada.

5. Kioskorik, tabernetako terrazarik, kutzazain automatikorik, salmenta-makinarik eta antzeko instalaziorik jarriz gero, haiek espaloiak edo eremu publikoak partzialki okupatzen badituzte, aukera eman beharko dute betiere oinezkoak pasatzeko, eta bat etorriko dira oinezkoen ibilbide-erako ezarritako arauekin.

6. Telefono kabinak, kutzazain automatikoak, salmenta- eta informazio-makinak eta antzeko elementuak, manipulatu behar badira, desgaitasun mota desberdinak dituzten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko moduan diseinatu behar dira, eta haien kokalekuak ez du traba izan behar pertsonen zirkulaziorako, ez eta ahalik eta erosoan erabiltzeko ere.

7. Diseinuari eta kokapenari dagokienez, irisgarriak izan beharko dute, halaber, paperontziek, gutunontziek eta antzeko beste elementu batzuek, eta haien kokalekuak ez du oinezkoen pasabidea oztopatuko.

8. Baldintza berberak bete beharko dituzte oinezkoen espazioetan paratzen diren elementu

irtenek, hala nola olanek eta halakoek, eta betiere ekidin beharko da horiek oztopo izatea pertsonen zirkulazio librerako.

9. Haurrentzako parkeak irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona oroentzako diseinuaren irizpideen arabera diseinatu eta kokatuko dira, eremu inklusiboak izan daitezen haur guztiak batera jostatzeko, haien gaitasunak direnak direla. Era berean, haurrentzako parkearen inguruak eta hartarako nahiz jostatzeko elementu desberdinetarako sarbideek irisgarriak izan beharko dute.

10. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, oinarrizko araudi indardunean xedatutakoa bete beharko da, ezertan ukatu gabe foru lege honen erregelamenduzko garapena.

**19. artikulua.** Erabilera publikoko naturaguneak.

Erabilera publikorako jarduerak egiten diren naturaguneetan, oinezkoentzako ibilbideak eta zerbitzu irisgarriak aurreikusi beharko dira, teknikoki posible den kasuetan eta moduan, halako moduz non uztartuko baitira ingurumenarekiko errespetua eta pertsona guztiek naturaz gozatzeko duten eskubidea, betiere naturaguneetarako irisgarritasunerako onesten diren gida orokorrekin bat.

Erregelamenduz ezarriko dira gida horien edukia eta gidak onesteko epeak, kasuan kasuko naturaguneak kudeatzeko planetan jasotako irisgarritasun aurreikuspenei jarraikiz betiere.

**20. artikulua.** Seinalizazio eta informazio irisgarria.

1. Oinezkoentzako ibilbideek seinalizazio osatua izanen dute, edozein desgaitasun duten pertsonak beti jakin dezaten non dauden edo nondik mugitu, eta seinaleak irakurgarriak eta ulergarriak direla bermatu beharko da.

2. Bermatuko da, bestalde, erraza izanen dela ingurune gune eta ekipamendu nagusiak aurkitzea, norabidea adierazten duen seinalizazioaren bidez, oinezkoentzako ibilbideetatik oinezkoek ongi irakurtzeko moduan. Erraztuko da, bestetik, eremu publikoan orientatu ahal izatea, irakurketa errazaren metodologiaren bidez eta piktograma homologatuak, braille sistema, soinuak seinaleak edo unean-unean informazio-eskurapenerako berme gehien ematen dituzten sistemak erabiliz. Bereziki hartuko dira kontuan errotuluaren tamaina eta kolorea, argiarengatik itsutzeko aukerarik ez izatea, gutxieneko argiztapena, kokapena, altuera eta orientazioa, bai eta hautematea galarazi edo zaildu dezakeen oztoporik ez izatea. Erabakitzen den guneetan, mapen eta informazio

puntuen bidez osatuko da seinalizazioa, eremu publikoan orientatzen eta autonomiaz mugitzen laguntzeko.

## II. KAPITULUA

### Irisgarritasuna eraikuntzan

#### 1. atala

#### Erabilera publikoko eraikinak

**21. artikulua.** Irisgarritasuna erabilera publiko-ko eraikinetan.

1. Erabilera publikoko eraikin, establezimendu edo instalaziotzat jotzen dira pertsona askok hainbat jarduera egiteko erabiliak izatekoak direnak: jarduera sozialak, jostetakoak, kirol, kultura eta hezkuntza arlokoak, merkataritzakoak, administrazioak, asistentzialak, etxebizitzakoak, erlijiosoak, osasungintzakoak edo antzekoak.

2. Erabilera publikoa duten eraikinak, titulartasun publiko nahiz pribatukoak izan, irisgarriak direla bermatzeko moduan proiektatu, eraiki, zaharberritu, birgaitu, zaindu eta erabiliko dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta epeetan.

3. Erabilera publikoko eraikinak handitu, birgaitu edo berritzeko lanetan bitarteko tekniko edo ekonomiko neurrigabeak behar direnean egokitzapenerako, arazoizko doikuntzak egiten ahalko dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

4. Erabilera publikokoak diren edo publikoaren joan-etorria daukaten eraikin, establezimendu eta instalazioen autobabeserako, larrialdietarako eta ebakuaziorako planetan, abisu-prozedura irisgarriak eta desgaitasuna dutenentzako eta adinekoentzako laguntza-produktuak ere jaso beharko dira.

**22. artikulua.** Eraikinetan sartzeko bideak.

Eraikin orotako sarbideek irisgarritasuna bermatu beharko dute barrenera sartzeko, bide publikoarekin eta aparkalekuekin lotzen duten eta erraz aurkitzeko modukoak diren ibilbide irisgarrien bitartez. Multzo bera osatzen duten zenbait eraikin daudenean, horiek komunikatuta egonen dira, bai elkarren artean bai eremu komunekin, ibilbide irisgarrien bitartez.

**23. artikulua.** Komunikazio horizontala eta bertikala.

1. Eraikin publiko baten erabilera edo zerbitzu desberdinak hartzen dituzten eremuen ezaugarriek modua eman behar dute pertsona guztiek modu independentean erabiltzeko, eta ibilbide irisgarrien eta ulergarrien bidez egonen dira komunikatuta.

2. Gutxienez ibilbide irisgarri bat egonen da maila bakoitzean, elkarrekin lotuko dituen kota berean dauden puntu irisgarri guztiak, solairuko sarrera eta irteera, bertan dauden aterpe eremuak eta komunikazio bertikal irisgarriko nukleoak.

3. Ibilbide horizontal irisgarri osoan barna honakoak egonen dira bermatuta:

a) Gurpil-aulkietan mugitzen diren pertsonen zirkulazioa.

b) Zoladura egokia izatea, irristatze-arriskua ahalik eta txikiena izateko eta desgaitasuna edo mugikortasun mugatua duten pertsonen joan-etorriak errazteko, bai eta ikusmeneko desgaitasuna dutenak bertatik autonomiaz ibil daitezela ziurtatzeko ere.

c) Zenbait guneren ikusizko komunikazioa, haien erabileraren arabera, entzumeneko desgaitasuna duten pertsonen beharrak kontuan hartuta.

**24. artikulua.** Mugikortasun bertikala.

1. Kota desberdinetan dauden gunen irisgarrien artean ibilbide irisgarri bat egonen da gutxienez, maila desberdinen artekoa, eskailerak ez diren bide irisgarri bat ere izanen duena gutxienez. Solairu bat baino gehiagoko erabilera publikoko eraikinek igogailu irisgarria izanen dute beti desgaitasun guztietarako, edo arrapala irisgarria.

2. Solairu bakoitzean, igogailuaren ate aurrean, behar besteko tokia egonen da gurpil-aulkien edo ibiltzeko beste lagungarri tekniko batzuen erabiltzaileak igaro ahal izateko, salbu eta berriak ez diren eraikinetan, haien ezaugarriek horretarako aukerarik ematen ez dutenean.

3. Informazio elementu irisgarriak paratuko dira, pertsona guztiei orientazioa eta eskailerak, arrapalak eta igogailuak erabiltzeko modua emateko.

**25. artikulua.** Komunak.

Erabilera publikoko eraikinek eta establezimenduek pertsona guztientzako komun irisgarriak izan behar dituzte erabilera publikoko eremuetan, erregelamenduz ezarritako moduan.

**26. artikulua.** Espazioen erreserba.

1. Bilkura aretoetan, ikuskinetako aretoetan eta jarleku finkoak dituzten lokaletan jarleku aldagarriak jarriko dira ibilbide irisgarriaren ondoan, ongi seinalizatuta, arazorik gabe aurkitzeko modukoak eta ebakuazio errazekoak, desgaitasuna, mugikortasuna murriztua edo zentzumeneko desgaitasuna dutenek erabil dezaten; jarleku finkoak dituzten eremu horietan eta itxaroteko guneetan gurpil-aul-

kiak erabiltzen dituztenentzat erreserbatutako tokiak egon daitezela ziurtatuko da.

2. Ereku horietan guztietan, orobat, begizta magnetiko bat edo entzumenezko desgaitasuna dutenen irisgarritasuna bermatuko duen sistema alternatibo bat bermatuko da, eremu batean jarria eta behar bezala seinalizatua. Zeinu-hizkuntzaren interpreteak hizlariengandik gertu jarriko dira, eta argitazpen berariazkoa izanen dute.

3. Gune horietan, irisgarritasun problemei konponbidea ematen dieten gailuak eta teknologia berriak egonen dira jarrita.

4. Desgaitasuna izan eta laguntza-txakurrak erabiltzen dituztenek gune horiek erabiltzeko eskubidea osoki baliatzen ahalko dute, eta ezin izanen da haien ibiltzeko eta sartzeko askatasuna mugatu arrazoi horregatik, Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen otsailaren 2ko 3/2015 Foru Legearen II. tituluan aurreikusitakoarekin bat.

**27. artikulua.** Altzariak eta informaziorako elementuak.

Altzari finkoen eta informazio eta komunikazio elementuen ezaugarriak, bai eta haien kokapena ere, desgaitasuna dutenek erabiltzeko modukoak izanen dira. Elementu horien kokapenak ez du inoiz ere oztopo izan behar ibilbide irisgarriarako.

## 2. atala

### Titulartasun pribatuko etxebizitza-erakinak

**28. artikulua.** Irisgarritasuna titulartasun pribatuko etxebizitza-erakinetan.

1. Eraikinaren kanpoaldean, lurzatiak ibilbide irisgarri bat izanen du gutxienez, eraikinaren sarrera nagusiarekin lotuko duena. Familia bakarreko etxebizitza multzoetan, etxebizitza bakoitzaren eremu pribaturako sarrera bat egonen da, bide publikoarekin eta kanpoko eremu komunekin lotzen duena, hala nola eraikinaren kanpoko aparkaleku propioekin, lorategi, igerileku, kirol-eremu eta antzeko guneekin.

2. Eraikin berriek eta familia anitzeko edo bakarreko etxebizitzek, eraikineko solairuen artean, ibilbide irisgarriak izanen dituzte, bide publikoaren, etxebizitza bakoitzaren eta haien zerbitzuan dauden erabilera komunitarioko eremuen arteko komunikazioa bermatzeko. Familia bakarreko etxebizitzetan eta familia anitzeko eraikinetan, erregelamenduz ezartzen direnetan, bide publikoa eta etxebizitzaren sarrera komunikatzen dituen ibilbide irisgarriaren ordez eremu bat aurreikus daiteke,

beharrezkoak diren laguntza produktuak etorkizunean jartzeko nahikoa toki izanen duena. Familia bakarreko etxebizitzek osatutako etxebizitza multzoak familia anitzeko eraikintzat hartzen dira haien eremu komunek bete beharreko irisgarritasun baldintzei dagokienez.

3. Eraikinek ibilbide irisgarri bat izanen dute solairu bakoitzean, solairu guztietarako sarbide irisgarria (eraikineko sarrera nagusi irisgarria, igogailu irisgarria, arrapala irisgarria), etxebizitzekin komunikatzeko, baita erabilera komunitarioko eremuekin eta etxebizitzek atxikiak dituzten elementuekin ere (hala nola trastelekuak, aparkatze-tokiak eta solairu berean kokatutako antzeko eremuak).

Garajetarako, trastelekuetarako edo etxebizitzaren erabilera komunitariorako solairuak daudenean, bertako igogailuen irisgarritasun eta sarrera baldintzak gainerako solairuetako berberak izanen dira.

Lursailaren baldintzak direla-eta aparkalekuetako solairuen maldak ehuneko seitik beherakoa izan behar duenean, baimena emanen da arrapalatak tartee gehieneko luzera-mugarik ez izateko, salbu eta solairu horretako toki irisgarrien eta sarbide irisgarriaren arteko ibilbide irisgarrian.

4. Etxebizitzetarako erabiltzen diren titulartasun pribatuko eraikinak berritu, birgaitu edo zaharberritzeko proiektuek, baldin eta hasieran ukitzen duten azaleraren portzentajea erregelamenduz ezarritakoa baino handiagoa bada, edo erabilera aldatzeko xede badira, obrak aurreikusi beharko dituzte, eta, kasu bakoitzerako, erabilera-aren, azaleraren eta esku-hartzearen mailaren arabera, erregelamenduz ezartzen diren irisgarritasun baldintzetara egokitu. Baldintza horiek betetzeko egokitzapenak eragindako kostua neurrigabea bada obraren kostuaren aldean, arrazoizko egokitzapenerako proposamen alternatibo bat eginen da.

5. Edozein kasutan ere, egindako erreformek ez dituzte murriztuko lehendik zeuden irisgarritasun baldintzak.

6. Etxebizitzen titular edo erabiltzaile direnek egindako egokitzapen lanei dagokienez, sektoreko legerian xedatutakoa bete beharko da.

## 3. atala

### Informazioa, seinalizazioa eta segurtasuna

**29. artikulua.** Informazioa, seinalizazioa eta segurtasuna.

1. Eraikinek behar den informazioa, seinalizazioa eta argitazpena izanen dute edozein pertsona

orientatzeko eta eremu eta ibilbide irisgarriak non dauden jakiteko, bai eta eraikina segurtasunez erabiltzeko ere.

2. Segurtasuneko informazioa erraz aurkitzeko moduko toki irisgarri batean egonen da, eta bide emanen du erabiltzaile guztiek ulertzeko, irakurketa errazaren metodologia erabiliz, edo piktograma homologatuak, braille, zeinuen hizkuntza, soinu-seinaleak edo unean-unean informazioa eskuratzeko berme gehien ematen duten sistemak erabiliz.

3. Eraikinetako guneak eta ekipamenduak seinalizatzean, kontuan hartuko dira argiztapena eta gainerako baldintzak, ikusizkoak, entzutekoak eta, beharrezkoa bada, ukitzeoak, hautemateko modua ematen dietenak zentzumenezko desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala duten pertsonen. Betiere, irisgarritasun kognitiboa eta ingurune ulergarriak bermatuko dira.

4. Informazioa eta seinalizazioa eguneratuak egonen dira. Eraikinean egiten diren egokitzapen, moldaketa eta irisgarritasuneko zerbitzu berri guztiak behar bezala seinalizatuak egonen dira, aurreko apartatuetan adierazitako ulerterretzasun-irizpideak kontuan hartuta.

#### 4. atala

##### **Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak erreserbatzea**

**30. artikulua.** Etxebizitza irisgarriak erreserbatzea.

1. Etxebizitza babestuaren kalifikazioa dutenak egiteko proiektuetan, etxebizitzaren kopuru osoaren ehuneko lau gutxienez erreserbatuko da desgaitasuna duten pertsonentzat, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean ezartzen den moduan.

2. Artikulu honetan aurreikusitako erreserbaren xede diren alokairuko etxebizitzak honakoei adjudikatzen ahalko zaizkie: desgaitasuna duten norbanakoei, desgaitasuna duen pertsona bat duten familia unitateei edo desgaitasunaren sektoreko irabazi-asmorik gabeko entitateei, azken kasu honetan entitate horiek etxebizitzak erabiltzen badituzte desgaitauna dutenen inklusio soziala eta bizimodu autonomia sustatzeko (esate baterako, laguntzadun etxebizitzak, etxebizitza konpartituak, babeseko etxebizitzak, desgaitasuna dutenen bizimodu beregainerako proiektuak eta antzeko soluzioak).

3. Erreserba egiteko betebeharra izanen dute, halaber, administrazio publikoek eta sektore publikoaren menpeko edo harekin lotutako gainerako

entitateek eraiki, sustatu edo diruz laguntzen duten beste edozein motatako etxebizitza proiektuek.

4. Lehen ezarritakoarekin bat, desgaitasuna dutenentzat erreserbatutako etxebizitzak proiektatzen diren eraikinetan, etxebizitza horiek dagozkie apartalekuko toki irisgarriak ere erreserbatu beharko dira, etxebizitzaren kopuru bera, eta ibilbide egokitu bat garajeak eta etxebizitzak komunikatzeko.

Proiektua konplexu arkitektoniko bat osatzen duten eraikin eta instalazio multzo bati dagokionean, konplexuaren proiektuak eta eraikuntzak, ezinbestean, aukera eman behar dute desgaitasuna dutenentzat irisgarriak izan daitezen higiezin eta instalazio osagarri guztiak edukitzeko.

5. Desgaitasuna dutenek eskura izanen dute etxebizitza erreserbatuen eskaintzari eta kudeatu eta erosteko prozedurei buruzko informazioa, formatu irisgarri eta ulergarri betiere.

#### 5. atala

##### **Balio historiko-artistikoa duten eraikinak**

**31. artikulua.** Balio historiko-artistikoa duten eraikinak.

Nafarroako Kultur Ondarea osatzen duten ondasun higiezinetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko behar diren egokitzapenak egiten ahalko dira, babesaren xede diren balioak zaindu beharra ukatu gabe. Oinarriko irisgarritasun baldintzetako bat betetzerik ez dagoenean, behar diren zentzuzko egokitzapenak aplikatuko dira. Nolanahi ere, ondasun mota honetan esku hartzeko, ondare historiko-artistikoaren arloko legerian aurreikusitako betebeharrak bete beharko dira.

Era berean, bitarteko alternatiboak sustatuko dira kultur ondarrera iristerik ez dutenak hartaz gozatzeko, bisita birtualak, audiodeskribapenak eta kopiak erabiliz horretarako.

Erregelamenduz ezarriko dira egokitzapenerako epeak eta baldintzak, baita, beharrezkoa bada, zentzuzko egokitzapena aplikatzekoak ere.

#### III. KAPITULUA

##### **Irisgarritasuna garraioan**

**32. artikulua.** Irisgarritasun baldintzak errepideko garraio publikoan.

1. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira garraio bideak: bidaiarien garraiorako erabiltzen diren ibilgailuak edo gainerako unitateak, eta

zerbitzua emateko behar diren erabilera publikoko eraikinak, nabeak eta eremuak, horiekin lotutako azpiegiturak, instalazioak eta altzariak barne.

2. Bidaiarien garraiorako ibilgailu edo gainerako unitate erosi berriek irisgarritasun unibertsalari buruzko araudian aurreikusitako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

3. Garraioarekin lotutako azpiegiturarako eraikinak, establezimenduak, eremu publikoak eta gainerako elementuak proiektatu, eraiki eta mantentzerakoan, ziurtatu beharra da pertsona guztiek erabil ditzaketela baldintza berdinetan eta modu beregain eta seguruan, eta seinalizazioa ere pertsona guztientzako irisgarritasun kognitiborekin eta ingurune ulergarrien irizpideekin eginen dela.

4. Garraibide publikoen titularrek elementuak egoera egokian mantenduko dituzte haien irisgarritasuna bermatzeko.

5. Bidaiarien garraibide publiko erregularrek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Toki Administrazioaren eskumenekoak direnek, irisgarritasun unibertsala bermatu beharko dute:

a) Azpiegituren parte diren erabilera publikoko barneko eta kanpoko guneetako sarbidean eta erabileretan.

b) Ibilgailuetako eta haien barnean egokitutako eremuetako sarbidean.

c) Eremu horietan eskaintzen diren erabilera publikoko produktu eta zerbitzuetan, bereziki lehiatiletan, erabiltzaileentzako informazio eta komunikazio sistemak barne. Jendearentzako informazio eta arreta guneetan zeinu hizkuntzen interpreteen eta gida interpreteen zerbitzua ematea bermatuko da, bertan dauden interpreteekin edo teleinterpretazioa erabiliz, bai eta ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak ere, begizta magnetikoak, adibidez, edo aurrerapen teknologikoen ondorioz sortzen diren bestelako laguntza produktuak.

d) Txartelen salmentan, web orrien edo gailu mugikorren aplikazioen bidezkoan.

e) Bidaiarien errepideko garraioaren erabilera orokorreko zerbitzu erregular berriak emateko ezaugarriak ezartzen dituzten plan edo proiektuek irisgarritasun memoria bat izan beharko dute nahitaez, zerbitzua ematean irisgarritasun unibertsala bermatzeko behar diren soluzio teknikoak jasoko dituen.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintza beharrezkoa izanen da, halaber, zerbitzu publikoa

kudeatzeko kontratu indardunetan egin beharreko aldaketak tramitatzean, baldin eta kontratu horiek trafiko berriei erantzun beharra badakarte.

6. Bidaiarien garraio-zerbitzu diskrezionala ematen dutenek azpiegituren irisgarritasun baldintzak bermatu behar dituzte, baita desgaitasuna dutenen zerbitzua ziurtatuko duten garraio unitateen gutxieneko portzentaje bat ere, erregelamenduz finkatuko dena.

7. Bidaiaren garraio publikoaren zerbitzu erregularra ematen dutenek prestakuntza eman beharko diete langileei desgaitasuna dutenentzako arretari buruz, bai tratuari dagokionez bai laguntza bitartekoen erabilerari dagokionez.

8. Bidaiarien garraio zerbitzu erregularrak adjudikatzeko lehiaketa guztietako baldintza agerian, desgaitasuna dutenei ibilgailuen erabilera errazteko baldintzak jaso beharko dira, Estatuko oinarrizko araudian eskatzen direnak, gutxienez.

9. Garraibide publikoek bete beharko dituzten irisgarritasun baldintzak erregelamenduz ezarriko dira, Estatuko oinarrizko araudi aplikagarrian ezarritakoa ukatu gabe betiere.

**33. artikulua.** Garraibideetan irisgarritasuna ezartzeko plana.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, plan bat egin eta onetsiko du foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, bidaiarien garraio publikorako garraibideetan irisgarritasun unibertsala ezartzen joateko.

**34. artikulua.** Ibilgailu automobiletarako aparkatxartela, mugikortasun urrituko desgaitasuna duten pertsonentzat.

Aparkatxartela eman eta erabiltzeko baldintzak izanen dira Desgaituentzako aparkatxartela emateko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituen abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuan xedatutakoak, ukatu gabe onuragarriena den foru eta toki araudian jasotako erabilera-baldintzak eta eskubideak.

**35. artikulua.** Ekintza positiborako neurriak garraioan.

1. Bidaiarien garraio publikorako ibilgailuetan eremuak erreserbatu eta seinalizatuko dira gurgil-aulkien erabiltzaileentzat eta mugikortasunari laguntzeko beste produktu batzuen erabiltzaileentzat, haien garraiorako segurtasun baldintzak horretarako aukera ematen badute; horrekin batera, toki batzuk erreserbatuko dira desgaitasuna izan eta laguntzako animaliak erabiltzen dutenek lehentasunez erabil ditzaten, Ezgaitasuna duten



pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen otsailaren 2ko 3/2015 Foru Legearen II. tituluan aurreikusitakoarekin bat.

2. Erregelamenduz ezarriko da zer populazio-gunetan izanen den gutxienez ibilgailu berezi bat edo taxi irisgarri bat mugikortasun murriztua dutenen joan-etorrien beharrei lehentasunez erantzuteko.

#### IV. KAPITULUA

##### **Irisgarritasuna herritarren eta Nafarroako administrazio publikoen arteko harremanetan**

**36. artikulua.** Herritarren eta Nafarroako administrazio publikoen arteko harremanak.

Erregelamenduz ezarriko da zein diren irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren gutxieneko baldintzak, bulego publikoek, eta herritarren arreta eta partaidetzarako prozedurek, gailuek eta zerbitzuek bete beharrekoak, giza baliabideei eta bitarteko materialei dagozkienak barne.

**37. artikulua.** Erregistroko eta herritarren arretarako laguntza bulegoetako langileen prestakuntza.

1. Nafarroako administrazio publikoek bere gain hartu beharko dute prestakuntza ematea langileei eta herritarrei bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza eta arreta ematen dietenei, pertsona guztiekin aritu eta haiei laguntza emateko ezagutza egokia izan dezaten.

2. Langile horientzako prestakuntza planetan prestakuntza berariazkoa egonen da desgaitasuna duten pertsonentzako arretari buruz eta erabiltzaileentzat eskuragarri dituzten laguntza produktuen erabilerari buruz; horretarako, espezializazio eta eguneratze programa iraunkorrak ezarriko dira, orokorrak eta desgaitasun mota guztietan aplikatzekoak.

3. Langileei irisgarritasun unibertsalaren arloko prestakuntza emanen zaie, pertsona guztien beharrezanez zerbitzua emateko.

#### V. KAPITULUA

##### **Irisgarritasuna komunikazioan, webguneetan eta gailu mugikorretarako aplikazioetan**

**38. artikulua.** Irisgarritasun-baldintzak komunikazioan.

1. Nafarroako administrazio publikoek komunikazioan oztupoak desagerrarazteko sustapen-lana eginen dute, baita hura irisgarria eginen duten

mekanismoak eta alternatiba tekniko nahiz pertsonenak ezartzeko ere.

2. Era berean, informazioa eskuratzeko modua erraztu beharko diete desgaitasuna dutenei, eta bermatuko dute interes publikoko testuak eta gehien erabiltzen diren inprimakiak irakurketa errazeko formatuan ematen direla, edo braille sisteman, zeinuen hizkuntzan, letra handituan edo aurrerapen teknologikoen poderioz garatzen diren beste sistema batzuetan.

3. Komunikazio eta publizitate kanpaina instituzionalek informazioa pertsona guztientzat irisgarria dela bermatuko dute.

##### **39. artikulua.** Hedabide sozialak.

1. Hedabideek, pixkanaka, komunikazioaren irisgarritasuna hobetzen duten aurrerapenak eta sistema berriak txertatzen joan beharko dute erabiltzen dituzten informazio eta komunikazio teknologietan.

2. Foru Komunitateko Administrazioak, ikus-entzunezko komunikazioaren arloko legeria berariazkoan, telebistako ikus-entzunezko edukien irisgarritasunerako baldintzak arautuko ditu, azpтитuluen, autodeskribapenaren eta zeinuen hizkuntzako interpretazioaren bitartezkoak.

3. Ikus-entzunezko komunikabideek, pixkanaka, autodeskribapeneko, azpтитuluetako eta zeinu hizkuntzaren interpretazioko sistemak sartzen joan beharko dute beren programazioa irisgarria izan dadin.

4. Nafarroako administrazio publikoek sustapen-lana eginen dute lan zinematografikoak eta ikus-entzunezkoak banatzen dituzten enpresak azpтитuluen eta autodeskribapen sistemak eta, banaketa digitalaren kasuan, audionabigazio sistemak txertatzen joan daitezten.

**40. artikulua.** Irisgarritasuna Nafarroako sektore publikoko webguneetan eta gailu mugikorretarako aplikazioetan.

1. Informazioaren eta telekomunikazioen gizar-tearen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek irisgarritasuna eta pertsona ororentzako diseinua bermatuko dituzte sinadura elektronikoa edo web orrien eta gailu mugikorretarako aplikazioen sarbidean; honakoetan, adibidez: administrazio publikoetan, zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten entitate eta enpresetan, eta diseinurako edo mantentze-lanetarako finantzaketa publikoa jasotzen duten webguneetan, Estatuko oinarriko araudiaren esparruan.



2. Nafarroako administrazio publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek horietarako sarbide elektronikoa bermatuko dute, eta Internet bidez zerbitzu horiei buruz ematen duten informazioak irisgarria izan beharko du.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen diren web orriek foru lege honetan ezarritako irisgarritasun maila bete beharko dute pixkanaka, eta aldian-aldian irisgarritasunari buruzko adierazpen bat eman eta eguneratu beharko dute, zehaztua, osotasunezkoa eta argia, beren webguneek eta gailu mugikorretarako aplikazioek maila hori betetzen dutela adierazteko, eta irisgarritasun baldintzen azken berrikuspenaren dataren berri emateko.

4. Irisgarritasunari buruzko adierazpena formatu irisgarrian emanen da, erregelamenduz ezarritako ereduari jarraituz. Nolanahi ere, Estatuko oinarrizko araudian ezarritako gutxieneko baldintzak errespetatuko dira.

5. Nafarroako administrazio publikoek zainduko dute informazio irisgarria lortzeko eskabide baten edo kexa baten ondoriozko erreklamazioa egiteko prozedura egokia eta eraginkorra izan dadila irisgarritasun unibertsala bermatzeko, bai eta komunikazioak eta eskaerak modu eraginkorrean tratatzeko, eta ebaluatzeko ere foru lege honetan ezarritako irisgarritasun baldintzak bete beharrak noiz eta noraino ezartzen duen neurritz kanpoko zama bat. Erregelamenduz arautuko da prozedura hori, Estatuko oinarrizko araudiari jarraituz.

6. Nafarroako administrazio publikoek aldian-aldian egiaztatuko dute webguneek eta gailu mugikorretarako aplikazioek betetzen ote dituzten foru lege honetan ezarritako irisgarritasun baldintzak. Erregelamenduz ezarriko dira bai betetze horren jarraipena egiteko metodologia bai jarraipenaren emaitzari buruzko txostenaren edukia.

7. Nafarroako administrazio publikoek prestakuntza programak sustatu eta emanen dizkiete beren langileei webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruz; programa horiek webguneen edukiak eta gailu mugikorretarako aplikazio irisgarriak sortu, kudeatu eta eguneratzeko diseinatutakoak izanen dira. Horrekin batera, neurriak hartuko dituzte foru lege honetan ezarritako irisgarritasun baldintzei buruz kontzientziatzeko, baita webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabiltzaileentzat nahiz jabeentzat dituzten onurei buruz eta aurreko apartatuan adierazitako irisgarritasun baldintzak bete ezean ohartarazpena egiteko mekanismoaz ere.

8. Nafarroako administrazio publikoek sensibilizazio, kontzientziazio, zabalkunde, hezkuntza eta, batez ere, prestakuntza neurriak sustatuko dituzte irisgarritasun unibertsalaren arloan, aurreko apartatuan aipatutakoez beste web orri batzuen titularrak ere pixkanaka irisgarritasun irizpideak txertatzen joan daitezzen lortzeko.

## VI. KAPITULUA

### Irisgarritasuna produktu eta zerbitzuetan

**41. artikulua.** Irisgarritasun baldintzak produktuetan.

Nafarroako administrazio publikoek produktu irisgarriak bermatu beharko dituzte eskaintzen dituzten zerbitzuetan, eta exijitu beharko dute produktu horiek eskura egotea esternalizatu dituzten zerbitzuetan ere. Azken kasu horretan, administrazio publikoek zainduko dute zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresek, entitateek eta erakundeek baldintza hori bete dezaten.

**42. artikulua.** Irisgarritasun baldintzak zerbitzu publikoetan.

1. Nafarroako administrazio publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek zerbitzu irisgarriak eskaini beharko dituzte, bai erabilerari dagokionez bai horiei buruz ematen den informazioari dagokionez.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira irisgarritasun baldintzak jendearen eskuragarri dauden zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko eta haiei buruz ematen den informaziorako; informazioa, betiere, irakurketa errazeko formatua, braille sistema, zeinuen hizkuntza, letra handitua edo sistema alternatiboak erabiliz emanen da.

3. Erabilera publikoko zerbitzu berriak ematen dituztenek irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatu beharko dituzte, pertsona guztiek berdintasunez erabil ahal izan dituzten desgaitasunak eragindako diskriminaziorik izan gabe.

4. Lehendik dauden erabilera publikoko zerbitzuak ematen dituztenek behar diren neurriak hartu beharko dituzte, ahalik eta irisgarritasun baldintzarik hoberenak lortzen joateko pixkanaka, doikuntza arrazoizkoen printzipioarekin bat. Erregelamenduz finkatuko da zein diren egokitzapen beharrezkoak eta zein diren haiek ezartzeko epeak.

5. Nafarroako administrazio publikoek zaindu beharko dute kudeaketa esternalizatua duten zerbitzuek erregelamenduz ezarrita dauden irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bete dituzten. Kasu horretan, zerbitzu publiko horiek ematen

dituzten enpresek, entitateek eta erakundeek baldintza horiek bete beharko dituzte.

6. Erabilera publikoko zerbitzuek jendearen eskura izan beharko dute agiri bat, zerbitzuaren irisgarritasun baldintzen berri ematen duena. Erregelamenduz ezarriko dira agiri horren edukia, ezaugarriak eta tramitazioa.

7. Nafarroako administrazio publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek beren web orrietan adierazi beharko dute zein diren ematen dituzten zerbitzuen irisgarritasun baldintzak eta eskuragai dauden laguntza-bitartekoak, eta esparru guztietan sustatu beharko dute irisgarritasun-beharrizan berariazkoak dituzten, ibiltzeko zailtasunak dituzten edo arreta presentziala jaso ezin duten pertsonetik harremana errazten duten informazio eta komunikazio teknologien erabilera.

## **VII. KAPITULUA**

### **Irisgarritasuna kultur, kirol eta aisialdi jardueretan**

**43. artikulua.** Kultur, kirol eta aisialdi jardueretako irisgarritasun baldintzak.

1. Kultur, kirol eta aisialdi jardueretan eta hala-ko ekitaldi publikoetan irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko dira, desgaitasuna duten pertsonen modua izan dezaten jarduera eta ekitaldi horietaz gozatzeko, haiek ulertzeko eta haietan parte hartzeko. Informazio guztia hizkera ulergarrian emanen da, erregelamenduz kasuko jardueraren arabera ezarritakoarekin bat.

2. Erregelamenduz ezarriko da zein diren kultur, kirol eta aisialdi zerbitzuek eta ekipamenduek irisgarritasunaren arloan bete beharreko gutxieneko baldintzak.

3. Hornitzaile pribatuek sustatuko dute kultur, kirol eta aisialdiko eskaintzaren zabalkundea egin dadin pertsona guztientzat irisgarriak eta ulergarriak diren formatuetan.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Irisgarritasuna enpleguan**

**44. artikulua.** Enplegua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea sustatuko du.

2. Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen berdintasuna berma dadin enplegu publikoan sartzeko eta barne igoeretan, bai langile finkoak hartzeko deialdietan bai aldi baterako kon-

tratazioan, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraikiz.

Horrekin batera, enplegu lagunduaren arloko neurriak ezarriko dira, desgaitasuna duten pertsonak lanpostu eskuratura egokitzen laguntzeko beharrezkoa den kasuan.

3. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute desgaitasuna duten langileak plantillan dituzten enpresen kontratazioa, kontratuak erre-serbatuz irabazi-asmorik gabeko entitateentzat, eta administrazio baldintza partikularren agirietan baldintza sozialak erantsiz, kontratazio publikoaren arloko araudian ezarritakoaren arabera.

**45. artikulua.** Enplegurako prestakuntza.

Nafarroako administrazio publikoek enplegura-ko prestakuntza sustatuko dute desgaitasuna duten pertsonentzat, ekintza positiborako neurriak hartuz; besteak beste, desgaitasuna duten pertsonentzako tokiak gordez prestakuntza ikastaroe-tan edo entitate ezberdinekin lankidetzan arituz prestakuntzako praktikak egiteko. Prestakuntzak irisgarriak eta ulergarriak izan beharko du desgaitasuna duten pertsonentzat.

## **IX. KAPITULUA**

### **Irisgarritasuna hezkuntzan**

**46. artikulua.** Hezkuntzarako eskubidea.

Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du desgaitasuna duten pertsonen berdintasunez jaso ahal izatea hezkuntza inklusiboa, kalitatezkoa eta doakoa, Estatuko legerian ezarritakoarekin bat.

Horretarako, hezkuntza sistema inklusiboa ziurtatuko du hezkuntza maila guztietan, eta desgaitasuna duten ikasleei eskolako postua bermatuko die oinarrizko hezkuntzan, arreta emanez desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza premia desberdinei, eta laguntza eta egokitzapen zentzuzkoak arautuz ikasketari edo inklusioari dago-kienez arreta berezia behar dutenentzat. Era bere-an, desgaitasuna duten ikasleei eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak Nafarroako hezkuntza sisteman egin nahi dituztenei sarbidea bermatuko zaie erreserba kupoaren sistemaren bidez edo eskolatzeko lehentasunezko irizpide gisa, legeria sektorialean aurreikusitako moduan.

Ikasleak salbuespenez baizik ez dira eskolatu-ko hezkuntza bereziko ikastetxeetan edo ordeko unitateetan, ikastetxe arruntek aniztasunari erant-zuteko hartzen dituzten neurrien esparruan ikasle horien premiei erantzun ezin zaienean eta, betie-re, gurasoen edo legezko tutoreen iritzia kontuan hartuta.

Baldin eta desgaitasuna duten pertsonen, oinarritzko hezkuntzan egoteko gehieneko epea agortuta, ez badute segitzen hezkuntza sistemaren barrenean jasotzen beren prestakuntza, orientazioa jasoko dute hortik aurrerako prestakuntza aukera ezberdinei buruz eta, batez ere, enplegurako prestakuntzari buruz.

**47. artikulua.** Unibertsitateko hezkuntzaren arloko neurriak.

Unibertsitateen arloko araudi indardunean eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onetsi zuen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.c) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroan irakaskuntza ematen duten unibertsitateek ziurtatu behar dute desgaitasuna duten pertsonen unibertsitateko ikasketak gainerakoen baldintza beretan egin ahal izan ditzaten, eta bermatuko dute unibertsitatearen esparruan osoki eta benetan parte har dezaketela.

**48. artikulua.** Irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren arloko prestakuntza.

1. Estatuko oinarritzko legeriarekin bat, Lanbide Heziketako tituluen diseinuan eta kasuko curriculum garapenean, irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren arloko prestakuntza txertatuko da.

2. Estatuko oinarritzko legeriarekin bat, Nafarroan irakaskuntza ematen duten unibertsitateek antzeko neurriak aurreikusiko dituzte beren titulazioen diseinuan.

## X. KAPITULUA

### Irisgarritasuna Justizia Administrazioan

**49. artikulua.** Irisgarritasun baldintzak Justizia Administrazioan.

1. Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua sustatuko ditu justiziaren alorrean.

2. Era berean, neurriak hartuko dira egoitza judizialak eta bertako komunikazioa eta informazioa irisgarriak izan daitezen pertsona guztientzat; adibidez, begizta magnetikoak jarritz judizio-aretoetan, edo zeinuen hizkuntzaren interpreteak eta gida interpreteak, presentzialak nahiz urrutiko interpretazioaren bidez, edo braille sistemak eta irakurketa errazeko sistemak erabiliz informazioan eta seinalizazioan, baita haiei lagun egiteko pertsonak ere.

## IV. TITULUA

### Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua

**50. artikulua.** Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua.

1. Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua parte-hartzean oinarritutako organo bat da, lehendakaritzako eskumena duen departamentuari atxikia, irisgarritasunaren arloko araudiaren arloan kontsulta, interpretazio, jarraipen eta kontrol eginkizunak dituena; bertan Nafarroako Gobernuako departamentu guztiak egonen dira ordezkaturik, eta, horiez gainera, ordezkariak handieneko elkarteak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defenditzeko helburua dutenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak eta ingurune, produktu, ondasun eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen elkarte pribatuak.

2. Kontseiluko burua lehendakaritzako eskumena duen departamentuko titularra izanen da eta, horrez gain, kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat, guxtienez ere zuzendari nagusiaren maila izanen duena, Nafarroako Gobernuako departamentu bakoitzeko. Edozein kasutan ere, lehendakaritzako eskumena duen zuzendari nagusia kontseiluko kide izanen da, eta idazkari lanak beteko ditu.

b) Administrazio elektronikoaren arloan eskumena duen zuzendari nagusia.

c) Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren ordezkari bat.

d) Desgaitasuna duten pertsonen arloan ordezkariak handienekoak diren irabazi-asmorik gabeko entitateen lau ordezkari. Ordezkariak handieneko entitateetat jotzen dira, ondorio hauerarako, halakoak direnak bai kopuruz, kide gehien dituztenak izateagatik, bai kalitatez, dauden desgaitasun mota desberdinetatik gehiago bilzteagatik.

e) Ordezkariak handieneko kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteen bi ordezkari.

f) Inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarte pribatuen hiru ordezkari.

g) Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturik hautatuak.

### 3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Aginduzko txostenak ematea irisgarritasunaren arloko foru lege aurreproiektuez eta erregelamenduzko xedapenen proiektuez.

b) Foru lege hau eta beronen garapenerako erregelamenduzko xedapenak bete daitezen sustatzea.

c) Foru lege hau betetzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.

d) Teknika arloko aurrerapenak nahiz foru lege hau eta beronen erregelamenduak aplikatzean jasotako iradokizunak aztertu eta biltzea, bai eta legearen helburuak betetzeko behar adina neurri har daitezen bultzatzea ere.

e) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege honen aplikazio esparruetako ingurune guztien erabileran irisgarritasun unibertsalerako eta ororentzako diseinuaren baldintzak betetzeari buruz; eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko organoei egoki den zehapen espedientea abia dezatela proposatzea.

f) Urteko txostena egitea foru lege honetako xedapenen betetze-mailari buruz, eta ondoren Nafarroako Parlamentuari bidaltzea txosten hori.

g) Arbitraje-batzordeak ezartzea eta arbitraje-sistemari buruzko auzien betetzearen jarraipena egitea.

h) Bere antolamendu eta funtzionamendu erregelamendua onestea eta aldatzea.

## V. TITULUA

### Arbitrajea eta bitartekaritza

#### 51. artikulua. Arbitrajea.

Alderdiek beren burua arbitraje-sistemaren esanetara jartzea borondatezkoa izanen da, eta espresuki geratuko da jasota, idatziz.

Interesa duten sektoreen ordezkariak, desgaitasuna duten pertsonak eta beren familiak ordezkatzeko dituzten erakundeen ordezkariak eta, zein bere eskumenen esparruan, administrazio publikoen ordezkariak osatuko dituzte arbitraje-organok, Arbitraje Batzordearen izaerarekin.

Abenduaren 1eko 1417/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat, Nafarroan arbitraje batzorde bat eratuko da, aukera-berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren arlokoa, arbitraje sistemaren kudeaketa eta administrazioarako kide anitzeko organoa izateko.

Foru lege honen 4. artikuluan aurreikusitako esparruetan irisgarritasun unibertsalaren arloan sortzen diren kexa eta erreklamazioak izanen dira arbitraje sistemaren xedea.

**52. artikulua.** Arbitraje sistema onartzea eta hari uko egitea.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arbitraje sistema onartzea eta hari uko egitea abenduaren 1eko 1417/2006 Errege Dekretuaren III. kapituluaren ezarritakoaren arabera izanen da; errege dekretu horren bidez, desgaitasunarekin lotutako aukera-berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta irisgarritasunaren arloan kexak eta erreklamazioak ebazteko arbitraje sistema ezartzen da.

#### 53. artikulua. Arbitraje prozedura.

Irisgarritasun unibertsalaren arloko arbitraje prozedurak abenduaren 1eko 1417/2006 Errege Dekretuaren V. kapituluaren aurreikusitakoarekin bete beharko du.

#### 54. artikulua. Bitartekaritza.

1. Desgaitasuna duten pertsonak, kasuaren arabera beharrezkoak diren laguntzak erabiliz, dituzten desadostasunak beren borondatez aurkezten ahal dituzte bitartekaritza-prozedura batean aztertuak izateko, akordio bat lortzearen.

2. Bitartekaritzaren arloko araudiarekin bat, bitartekaritza prozedurek desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuna bermatu beharko dute, foru lege honetan eta irisgarritasun unibertsalaren arloan indarra duen araudian aurreikusitakoarekin bat. Bereziki bermatu beharko da inguruneen irisgarritasuna, zeinuen hizkuntzaren eta ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoen erabilera, braille sistemarena, ukimenezko komunikazioarena edo beste edozein bitarteko edo sistemarena, desgaitasuna duten pertsonak prozesuan osoki eta berdintasunez parte hartzen dutela ziurtatzeko.

3. Aldeek adosten dutenean sistema elektronikoa erabiltzea bitartekaritza prozeduran, sistema horiek foru lege honetan eta informazio gizartearen zerbitzuen arloan indarra duen araudian aurreikusitako irisgarritasun baldintzak bete beharko dituzte.

4. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ahalegina eginen da jendeak jakin dezan bitartekaritza existitzen dela desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien arteko gatazkak kudeatu eta konpontzeko mekanismo gisa. Nafarroako Gobernuak, helburu horrekin, bitartekaritza zerbitzu publiko eta inpartziala emanen du desgaitasuna duten pertsonentzat.



## VI. TITULUA Zehapen araubidea

### 55. artikulua. Zehapen araubidea.

Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsalaren arloan babes osoa izan dezaten bermatze aldera, Nafarroan aplikatuko den zehapen araubidea Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean ezarritakoa izan da. Testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Foru lege honetan xedatutakora egokitzeko jarduketa plana.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete-ko epean, Nafarroako Gobernuako departamentuek, edota Lehendakaritza Departamentuak, Gobernu osoaren izenean, irisgarritasun unibertsalaren arloko jarduketa plan bat aurkeztuko dute Nafarroako Parlamentuan, eta bertan finkatuko dira pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona ororentzako diseinurako eskubidearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak. Hori ez da eragozpen izan foru lege honek dakartzan betebeharrak berehalakoan betetzeko.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Toki entitateek egokitze plan integralak onestea.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako toki entitateek irisgarritasun unibertsalaren arloko jarduketa plan integral bana aurkeztuko dute, eta haietan aztertuko dira bai araudi guztia bai foru lege honen aplikazio esparrua osatzen duen errealitate objektiboa, foru legean ezarritako irisgarritasun unibertsalerako neurrietara pixkanaka egokitzen joateko, edo, kasu bada, arrazoizko egokitzapenak gauzatzeko, neurriak, egutegia eta beharrezkoak diren diru zenbatekoak ere zehaztuta. Hori ez da eragozpen izan foru lege honek dakartzan betebeharrak berehalakoan betetzeko.

**Xedapen iragankor bakarria.** Erregelamenduzko garapen indarduna.

Foru lege honetan eta Estatuko oinarrizko araudian xedatutakoaren aurkakoak ez diren heinean, foru lege honek indarra hartzen duenean indardun diren Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenek indarra izaten jarraituko dute harik eta foru lege honetan aurreikusitako arau-garapenek indarra hartu arte.

**Xedapen indargabetzaile bakarria.** Arauak indargabetzea.

Foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indargabetzen dira, eta, zehazki, apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzkoa, martxoaren 15eko 57/1990 Foru Dekretua, garraioetako oztopo fisiko zein sentzorialak kentzeko Arautegia onesten duena, eta ekainaren 29ko 154/1989 Foru Dekretua, Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea garatu eta aplikatzeko erregelamendua onesten duena.

**Azken xedapenetako lehena.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 20. artikulua 3. apartatuko a) eta b) letrak aldatzen dira, eta aurrerantzean testu hau izanen dute:

“20. artikulua. Erreserbak.

3. Etxebizitza babestuak honako erreserba hauen arabera adjudikatuko dira, adjudikatzekoak diren sustapenetako etxebizitza kopuru osoari dagokionez:

a) Desgaitasuna duten pertsonak: ehuneko 6. Etxebizitza horiek adjudikatu ondoren, eta horien egitea amaituta ez baldin badago, horien eraikuntza adjudikazio-hartzailearen beharizan berariazkoetara egokituko da.

b) Aurreko erreserbaren barrenean, adjudikatu beharreko etxebizitzak 2 edo gehiago direnean, sustapenean dauden etxebizitzak ehuneko 4 mugikortasunaren desgaitasun larria duten pertsonentzat erreserbatuko dira. Horrelako eskatzaileak ez badago, etxebizitzak desgaitasuna duten gainerako pertsonentzat izanen dira”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Foru lege hau garatzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman eta behar diren neurriak har ditzan.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.





**Foru Legea, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzekoa, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 7an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, 2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzekoa, “Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea,  
2018ko gastuen aurrekontuan 356.525 euroko kreditu berezia onartzekoa,  
“Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA” (INTIA) entitateari kapital transferentzia bat egiteko, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egin ditzan**

ATARIKOA

Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuaren 2018ko gastuen aurrekontuan “Finka esperimentaletako instalazioak egokitzea” izeneko 720000 71510 6020 414300 partida dago, 500.000 euroko zuzkidura duena.

Inbertsio beharrak detektatu zaizkien finkak Sabaizakoa, Orreagakoa eta Sartagudakoa dira.

Sabaizako finka INTIA SArI laga gabe dagonez eta Nafarroako Gobernuaren titularitatekoa denez, bertan egin beharreko lanak 6. kapituluko inbertsio bereki gisa tramitatuko dira.

Sartagudako finka Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da, baina INTIA SAK erabiltzen du;

Orreagako finka, berriz, Orreagako Kolegiataren titularitatekoa da eta INTIA SAK erabiltzen du.

Inbertsioen xedea, funtsean, eraikin nagusia berritzea eta instalazioetan beste hobekuntza osagarri batzuk egitea da, Sartagudakoaren kasuan; Orreagakoa, fibrozementuzko estalkiak ordeztuko dira abeltzaintzako nabeetan eta nekazaritzako biltegian. Lanetarako behar den zenbatekoa 356.525 eurokoa da.

Inbertsioak ezin dira hurrengo ekitaldira arte atzeratu, instalazioen egoera txarra da-eta, INTIAk aurkeztutako txostenean jasotzen den bezala.

Horregatik proposatzen da 2018ko gastuen aurrekontuan partida berri bat sortzea, “INTIArentzako kapital transferentzia, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egitekoa”, 720000 71510 7400 414300 kodea izan den duena; eta ondoren, horri 356.525 euroko zuzkidura ematea, kreditu berezi baten bidez.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta aurrekontuan krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu berezi bat ematekoa.

Aurreko guztiagatik, bidezkoa da foru lege hau onestea, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposatuta.

**1. artikulua.** Aurrekontuko partida sortzea.

2018ko gastuen aurrekontuan kode hau duen partida sortzen da: 720000 71510 7400 414300 “INTIArentzako kapital transferentzia, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egitekoa”.

**2. artikulua.** Kreditu berezi bat ematea.

356.525 euroko kreditua ematen da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren beharrei erantzuteko.

Kreditu hori aurrekontuko partida honetan aplikatuko da:

Partida	Zenbatekoa
720000 71510 7400 414300 partida, "INTIArentzako kapital transferentzia, Sartagudako eta Orreagako finka esperimentaletan inbertsioak egitekoa"	356.525 €

**3. artikulua.** Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hori aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da:

Partida	Zenbatekoa
720000 71510 6020 414300 "Finka esperimentaletako instalazioak egokitzea"	356.525 €

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, kargudun publikoei administrazio-zehapenak ezartzen dizkiena.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 7an egindako bileran, ezetsi egin du kargudun publikoei administrazio-zehapenak ezartzen dizkien Foru Lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

## **Lege proposamena, kanabis-erabiltzaileak arautzen dituen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 7an egindako bileran, kanabis-erabiltzaileak arautzen dituen Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaira bidaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Agintzen da aipatu lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Lege proposamena, kanabis-erabiltzaileak arautzen dituen.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioak 10.1 artikuluan aldarrikatzen du ordena politikoaren eta gizarteko bakearen oinarria “pertsonaren duintasuna”, “berez dagozkion eskubide bortxaezinak” eta nor-tasunaren garapen liberako eskubidea direla. Konstituzio-jurisprudentziak honako hau aitortzen du: “eskubide indibidualetan proiektatuta, Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua arauak honako hau dakar berekin: “pertsonak berezko duen balio espiritual eta morala den aldetik, duintasuna aldaketarik gabe mantendu behar da pertsonaren edozein egoeratan, eta, horrenbestez, ‘minimum’ ukiezin bat da, estatutu juridiko orok segurtatu beharrekoa”.

Espainiako Konstituzioak guztiz babesten ditu eskubide horiek eta eskubideen eduki horiek, “zeinak pertsonaren baitira, pertsona eta herritarra den aldetik”; edo, bestela esanda, “haietatik ezinbestekoak direnak gizakiaren duintasuna bermatzeko”.

Pertsonaren duintasunak Espainiako Konstituzioan duen garrantzia eta munta konstituzio-jurisprudenzian nabarmentzen da: “gure Konstituzioak, halaber, funtsezko balio juridikoaren izaeraino goratu du pertsonaren duintasuna, zeina, hark berezko dituen eskubideak kendu gabe, estu loturik baitago pertsonaren garapen librearekin (10.art.), osotasun fisiko eta moralerako eskubidearekin (15. art.), ideia- eta sinesmen-askatasunarekin (16. art.), eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideekin (18.1 art.). Arau horien zentzutik ondoriozta daiteke duintasuna pertsonak berezko duen balio espiritual eta moral bat dela” (Konstituzio Auzitegiaren 53/1985 Epaia, apirilaren 11koa).

Intimitaterako eskubidea Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan dago bermatuta, eta pertsonalitatearekin lotutako eskubide guztietatik duintasunerako eskubidearekin gehien lotu izan dena da. Intimitaterako eskubidea saiatzen da beti subjektuaren autodeterminazio-ahalmenak aldezteten. Espainiako Konstituzio Auzitegiak bere doktrinan behin eta berriz lotu du intimitatearen babesa giza duintasunaren printzipioarekin. Pertsona orok merezi duen errespetua eratoritzen da hark bere bizitza-plan propioa aukeratzeko, moldatzeko eta aldatzeko, “zoriontasuna bere modura bilatzeko” daukan gaitasunetik.

Gaur egun, Espainiako populazioaren zati esanguratsu batek kanabisa kontsumitzen du, arrazoi ludiko edo terapeutikoak tarteko. Osasunari kalte larririk egiten ez dion substantzia bat da; pertsona helduek beren esparru pribatuan hura kontsumitzea –arrazoi ludiko edo terapeutikoak tarteko– honako funtsezko eskubide hauetaz baliatzearen zati bat da: pertsonalitatearen garapen liberako eskubidea, zoriontasuna bilatzeko eskubidea eta kontzientzia-askatasunean eta norberaren gorputzaz libreki baliatzean proiektatzen den askatasunerako eskubidea.

Kanabisaren kontsumoari, hazkuntzari eta hornikuntzari buruzko Espainiako egungo legetestuingurua apirilaren 8ko 17/1967 Legeak zehazten duena da. Haren norainokoa eta indarra, nolana ere, 1978ko Espainiako Konstituzioak

bermatzen dituen funtsezko balioen eta eskubide eta askatasun publiko eta indibidualen errespetuak mugatuta dago. Horrenbestez, estupefazienteen kontsumoari eta hornikuntza-ekintzei buruz lege aurrekonstituzional aipatuak ezartzen duen debekua indarduntzat hartzekoa da egokitasunaren, proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei doitzen zaien neurrian soilik, zeren eta Konstituzioko eskubide eta printzipioak uki baititzake, eta debeku hori ezin da inolaz ere absolutua izan, osasunari kalte larririk egiten ez dion substantzia bat izaki, pertsona adindunek libreki eta pribatuki kontsumitzen dutenean; beraz, ulertu beharra dago debeku hori justifikatuta dagoela ahuldade-egoeran dauden kolektiboek kontsumitzen dutenean, edo bide publikoan kontsumitzen denean.

Bestalde, Espainiako Zigor Kodeak 368. artikuluan zigortzen ditu estupefazienteen kontsumo ilegala sustatzeko, aldezteko edo errazteko ekintzak. Beraz, arau horren aplikazioa erartortzen da kontsumo ilegala eta substantzia debekatuak definitzen dituzten erregulazio administratiboetatik, eta baldintzaturik suertatzen da erregulazio horietara eta arrotasun faktore batera. Eredu administratiboan, erreferentziakoa da, halaber, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko 4/2015 Lege Organikoa, zeinak ezartzen baitu arau-hauste larriak direla droga toxikoak, estupefazienteak edo substantzia psikotropikoak legez kanpo kontsumitu edo edukitzea toki, bide, establezimendu publiko edo garraio kolektiboetan, bai eta hazkuntza-ekintzak ere, jendeak ikusteko moduko tokietan egiten badira.

Kanabisaren kontsumoa, beraz, ez da izan arau-hauste penal edo administratiboa baldin eta egiten bada Espainiako Konstituzioak ezarrirako funtsezko eskubide eta printzipioen arabera interpretatutako arauak ezartzen dituzten mugen barruan.

Esparru horren barruan, kanabis-kontsumitzaileak eta gizarte zibila kanabis-kontsumitzaileen elkarteetan eta klubetan eredu bat garatzen joan dira, eta horien bidez aukera eman dute merkatu klandestinitatik –dauzkan eragin kaltegarriekin– datorrenaz bestelako autohornikuntza kolektibo bat izateko, zeinak ospe handiko erakunde espezializatuen bermea baitu.

Klub horiek, gaur egun, erkidego guztietan ugalduta dira, eta araudi bat behar dute, entitate gisa segurtasun juridikoa emanen diena eta, aldi berean, beren kideentzako nahiz oro har gizartearentzako segurtasun osoz jardutea zainduko duena.

Legezko erregulaziorako hainbat prozesu izan dira jada hainbat parlamentu autonomikotan – Nafarroa, Katalunia, Euskadi eta Balear Uharteak –, eta udalerrri ugari ere ordenantzak onetsi dituzte klub hauen jarduerari antolatzeko.

Nazioartean ere, orientazio-aldaketa oso garrantzitsu bat gertatzen ari da kanabisari buruzko politiketan, eta substantzia horren kontsumoa, hazkuntza eta banaketa legeztatzen ari diren herrialde eta estatuak gero eta gehiago dira, honako irizpide hauetan oinarrituta: ebidentzia zientifikoa, funtsezko eskubideekiko errespetua eta desberdintasunerako, arriskuen kudeaketarako eta kalte-murrizketarako eskubidearen aitortzea. Testuinguru horretan, Espainiako gizarte zibilak garatu duen kanabis klub sozialen ereduareferentziatza hartu dute beste estatu batzuek.

Ez dagoenez arau-esparru argirik, gaur egun gorik eta indarreko konstituzio-printzipioekiko koherenterik, eta errealitate sozialarekin zein herritarren beharrezko legitimoekiko koherenterik ere, hainbat pertsona eta entitate segurtasun-falta desiragaitz baten eraginpean daude, eta horrek beharrezko egiten du berriazko araudi bat izatea, entitate eta pertsonen segurtasun juridiko desiragarri bat bermatzeko, arbitrariotasuna saihesteko eta gizartearen tresna batzuk emateko, egiazko eragina izan den osasunaren babesean eta kontsumitzaileen nahiz, oro har, herritarren funtsezko eskubideen baliatzean. Horixe da, hain zuzen, legegintzako ekimen honen helburua.

## **I. KAPITULUA**

### **Xedapen orokorrak**

#### **1. artikulua.**

Lege honen helburua da arau orokorrak ezartzea kanabis-kontsumitzaileen zein beren autohazkuntzaren eta kanabis-kontsumitzaileen elkarteetan eraketari, antolaketari eta funtzionamenduari buruz.

**2. artikulua.** Foru lege honen aplikazio-eremua Espainiako lurralde osoa izan dena da, eta toki entitateen eskumenak errespetatuko ditu, kanabis-kontsumitzaileen klubetan ezarpenari eta jarduerari aplikatzeko den orotan.

**3. artikulua.** Lege hau aplikatzeko izan den zaie 6. artikuluan zehaztutako entitateei, beren helbidea Espainian badute edo beren jarduerak Espainian garatzen badituzte.

**4. artikulua.** Lege honek Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoan du babesa, kanabis-

kontsumitzaileen klubak irabazi asmorik gabeko elkarte gisa hartzeari dagokionez.

**5. artikulua.** Honako hauek dira lege honen xedeak:

1. Populazioaren osasun publikoa babestu, sustatu eta hobetzea, kanabis-kontsumoaren arriskuak eta kalteak ahal den guztian gutxitzea bideratutako politika baten bitartez.

2. Tresna batzuk ezartzea kanabis-kontsumitzaileen osasuna babesteko; bereziki, kontsumitzen duten produktuaren kalitatea eta ezaugarri eta eraginak kontrolatzea eta haiei buruzko informazioa izatea.

3. Substantzia honen kontsumoarekin lotutako ondorioei eta eragin kaltegarri zein terapeutiko eta medikuntzakoei buruzko behar bezalako informazioa, heziketa eta prebentzioa bultzatzea.

4. Autonomia erkidegoetako administrazioak eta udalak beren jardueran aritzeko baldintzak ezartzea, eta haiei publizitatea ematea.

5. Ente autonomikoei eta udal enteei tresnak ematea kanabis-kontsumitzaileen elkarten jarduerak baimentzeko.

6. Segurtasun juridikoko esparru bat ezartzea kanabis-kontsumitzaileen elkarten jardueretarako.

7. Elkarte horiek osatzen dituzten kideen eskubideak bermatzea.

**6. artikulua.** Lege honen ondorioetarako, eta oinarritzat hartuta jada kanabis-kontsumitzaileak badaudela, honako hauek dira definizioak:

- Autokontsumorako autohazkuntza: Legezko autohazkuntzat joko da hazkuntza pribatua, jendearentzat irisgarri ez dena eta ikusgai ez dagoena; gehienez ere 4 m<sup>2</sup> izanen ditu barneko hazkuntzaren kasuan eta 8 landare kanpoko hazkuntzaren kasuan, eta erregistratutako kontsumitzaile baten kontsumorako izanen da, eta ezin izanen zaie hirugarrenei pasatu. Hazitako kopurua ez da izanen pertsonako eta eguneko 10 gramo kontsumitzeko kalkulaturakoa baino handiagoa.

Autohazkuntza bat legezkoa izateko, kontsumitzaileak halakotzat inskribatu beharra dauka horretarako sortutako erregistroan, eta kasuko administrazioak eskatzen dizkion baldintza eta kontrolak bete behar ditu.

Autohazleen kontrolerako sortutako erregistroek pribatuak izan beharko dute eta haietarako sarbidea izanen da soilik ikerketa judizial bat dagoe-

nean. Erregistroak egiaztatu beharko du kasuko pertsona kanabis-kontsumitzailea dela.

- Klub eta elkarteetan autokontsumo komunala egiteko autohazkuntza komunala. Legezko autohazkuntza komunaltzat joko da hazkuntza pribatua, jendearentzat irisgarri ez dena eta ikusgai ez dagoena, elkarteek eta klubek modu komunalean egiten dutena. Gehienez ere 4 m<sup>2</sup>-koa izanen da barneko hazkuntzaren kasuan, elkarteko kide den kontsumitzaile bakoitzeko, eta 8 landarekoa, berriz, kanpoko hazkuntzaren kasuan, elkarteko kide den kontsumitzaile bakoitzeko, eta elkarte edo klub bateko kontsumo propiorako bideratuko da. Kontsumo hori pribatua izanen da eta hirugarrenei pasatzerik ez dagoen zirkulu komunal batean itxia. Hazitako kopurua ez da izanen pertsonako eta eguneko 10 gramo kontsumitzeko kalkulaturakoa baino handiagoa.

Autohazkuntza komunal bat legezkoa izateko, klubak edo elkarteak halakotzat inskribatu beharra dauka horretarako sortutako erregistroan, eta kasuko administrazioak eskatzen dizkion baldintza eta kontrolak bete behar ditu.

Autohazleen kontrolerako sortutako erregistroek pribatuak izan beharko dute, eta haietarako sarbidea izanen da soilik eskaera judizial bat dagoenean. Erregistroak egiaztatu beharko du kasuko pertsona kanabis-kontsumitzailea dela.

- Autokontsumitzaileak: Horretarako sortutako erregistroetan erregistratzen diren adindunak dira, eta kanabisa hazten dute soilik beren kontsumo propiorako, eremu pribatu batean, zeina ez baita jendeak ikusteko moduan egonen, ez eta hirugarrenek hartara sarbidea izateko moduan ere.

- Kanabis-kontsumitzaileen elkarteak: Irabazi asmorik gabeko elkarteak dira, legez eratuak, bazkideen kontsumorako autohornikuntza egiten dutenak. Bazkide guztiak adindunak izanen dira, eta substantzia hori eremu pribatu batean kontsumituko dute, xede ludiko zein terapeutiko baterako, hartara saihestuz merkatu klandestinoarekin eta kanabisaren erabilera jakin batzuekin lotutako osasun-kalteak, legedi indardunari jarraituz.

- Autohazleen erregistroa: beren kanabisa autohaztea erabakitzen duten pertsona guztiak inskribatzen diren udal erregistroa. Erregistro horretan, beren kanabis propioa autohaziko duen pertsonaren edo autohaziko duten pertsonen izena eta NANA jasoko dira, bai eta non haziko duten ere. Kontsumitzaileen intimitatea babeste aldera, erregistro hori pribatua izanen da, eta agindu judizialez baizik ezin izanen da hartara sarbiderik izan.



- Hazkuntza partekatuaren erregistroa: beren bazkideentzat kanabisaren autohornikuntza egitea eta kanabisa haztea erabakitzen duten elkarte guztiak inskribatzen diren udal erregistroa. Hirugarrenei zabaltzea ekiditearren, erregistro horretan jasoko dira hazkuntzarako aurreikuspena eta kontsumorako aurreikuspena, egiaztatze aldera haziko diren kopuruak eta kontsumituko direnak bat datozela. Elkartearen IFZ eta hazkuntza eginen den tokia jaso beharko dira. Kontsumitzaileen intimitatea babeste aldera, erregistro hori pribatua izanen da, eta agindu judizialez baizik ezin izanen da hartara sarbiderik izan.

- Kanabis klub soziala: Ereku pribatuko espazio bat da, kanabis-kontsumitzaileen elkarte batek kudeatua, zeinak baldintza egokiak baitauzka. Bertako jarduera nagusia da klubeko kideek kanabisa kontsumitzea.

- Kanabis-erretzaileen klub soziala: Ereku pribatuko espazio bat da, kanabis-kontsumitzaileen elkarte batek kudeatua, zeinak baldintza egokiak baitauzka. Bertako jarduera nagusia da kanabisa konbustio bidez kontsumitzea.

**7. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz jardunen dute.

**8. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek administrazio publikoekiko harreman arina izanen dute, osasun-kontrolako neurriak ezartzen lagunduko dute eta kontsumo arduratsua bultzatuko dute beren kideen artean. Horretarako, beharrezkoak diren organo edo entitateak sortuko dira, teknikariek, administrazioen ordezkariak eta klubetako kideek edo haien ordezkariak parte hartuta.

## II. KAPITULUA

### Kanabis-kontsumitzaileen klubek eraketa

**9. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek irabazi asmorik gabeko elkarten forma juridikoa izanen dute, eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatuaren arabera eratuko dira. Autonomia erkidego bakoitzeko elkarten erregistroan eman beharko dute izena, eta behar den dokumentazioa aurkeztu.

**10. artikulua.** Bazkide fundatzaileek ohiko kanabis-kontsumitzaile izan beharko dute klubak jarduten hasi aurretik.

**11. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek helburuen artean honako hauek egon beharko dute, gutxienez ere:

- substantziaren autohornikuntza eta kontsumoa egitea bazkideen artean, lege honek xedatutakoaren arabera.

- beren kideei kanabis-kontsumoaren arriskuen prebentziorako prestakuntza ematea, bai eta horren kontsumoaren kalteak gutxitzearen arlokoa ere;

- bai beren kideek eginiko kontsumoaren bai substantziaren kontrola;

- erabiltzaileei norberaren kontsumoari buruz informatzea eta hori erraztea;

- kanabis-salmentaren lege kanpoko merkaturatu urritzeko lan egitea.

**12. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek egoitzarako lokalek udal ordenantzetan xedatzen dena bete beharko dute beren kokalekuari, egiturari eta osasungarritasun- nahiz higienearauei dagokienez bai eta Tabakismoaren kontrako osasun-neurriak ezartzeko eta tabako produktuen salmenta, hornikuntza eta publizitatea arautzeko 28/2005 Legean xedatutakoa ere, kasua bada.

Fisikoki zeharo berezita egonen dira jendeari arreta emateko edo bazkide ez diren pertsonak sar daitezkeen guneak eta kontsumorako guneak.

Toki entitateek, beren eskumenak baliatuta, egoki jotzen dituzten baldintzak ezarri ahalko dituzte, kanabis-kontsumitzaileen klubek jardunera bideratutako lokalak irekitzeari buruzkoak.

## III. KAPITULUA

### Antolaketa eta funtzionamendua

**13. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoaren, beren estatutuen eta beren barne araudiaren araberrako barne-antolaketa izanen dute.

**14. artikulua.** Beren jardunean, kanabis-kontsumitzaileen klubek bete egin beharko dituzte beren kideek kanabisa kontsumitu ahal izateko ezartzen diren osasun- nahiz segurtasun-baldintzak.

**15. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideei zuzendutako jarduerak egin beharko dituzte, abusuzko kontsumoa ekidite aldera eta kanabisaren kontsumo arduratsua errazte aldera.

**16. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideei soilik utziko diete sartzeko edozein kontsumo-jarduera egiten den lokaletan.

**17. artikulua.** Klubak bere kideen erregistro bat egin beharko du, kasuko datu pertsonalak jasota, halako moduan non edozein unetan zehaz-

ten ahalko baita nork osatzen duen elkarte, datuen babesari buruzko araudia une oro errespetatuta.

**18. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubak bazkide izan ahalko dira klubean sartzeko eskabidea egin aurretik kanabis-kontsumitzaile direla frogatzen duten adin nagusiko pertsonak.

Bazkideen artean kanabisa kontsumitzeko autohornikuntza-jarduerarik egonez gero, legedi indardunari jarraituz, jardueran inskribatutako bazkideen erregistro-liburu bat eduki beharko dute; hartan jasoko dira haien zenbakia, eskaeraren data, kontsumo-aurreikuspena eta hilez hil eguneratutako kontsumo-datuak.

**19. artikulua.** Autohornikuntzaren erregistro-liburuak.

1. Autohornikuntza pribatuko programa bat garatzen duten elkarteek erregistro-liburu bat eduki beharko dute, kontsumo sozialaren aurreikuspena jasoko duena; bertan, gutxienez ere, inskribatutako bazkideen kopurua, haien banakako aurreikuspena eta guztien baterako aurreikuspena jasoko dira.

2. Halaber, autohornikuntzaren programaziorako eta emaitzei buruzko liburu bat eduki beharko dute, zeinean ziurtatuko baitira datak eta programatutako hazkuntzak, haietan erabilitako teknikak, bai eta bildutako kopuruak eta kontsumorako gai direnak ere, legedi indardunari jarraituz.

3. Elkarteek autohornikuntza-programan inskribatutako bazkideen kontsumoari buruzko erregistro gaurkotu bat eduki beharko dute, eta bertan gutxienez ere bazkide-zenbakia, kontsumitutako kopuruak eta kontsumoaren data jasoko dira.

4. Bazkide batek bere kanabis-kuota kontsumitu nahi duen unean, egiaztatu beharko dira haren identitatea, onetsitako kontsumo-aurreikuspena eta kasuko hilean egindako kontsumizioak, hartara egiaztatzeke ezen kontsumoa ezarritako parametroen arabera dela. Horretarako, elkarteek prozesu hori bermatzen duten bitarteko tekniko, pertsonal eta informatikoak eduki beharko dituzte, legedi indardunari jarraituz.

**20. artikulua.** Kluba osatzen duten pertsona guztiek bete beharko dute legeetan nahiz funtzionamenduari buruzko barne-arauetan xedatutakoa.

**21. artikulua.** Kluba osatzen duten pertsona guztiek –eskubide osoko bazkideek– prestakuntza jaso beharko dute, kanabisaren kontsumoari lotutako balizko arriskuen eta kalteen prebentzioaren arlokoa.

**22. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubak saiatuko dira eskubide osoko beren kideek substantzia adulteratugabea kontsumi dezaten; hortaz, ezartzen diren osasun-kontrolak igaro beharko ditu substantziak.

**23. artikulua.** Kluba osatzen duten pertsonak behar bezala informatuta egoteko eskubidea dute, kanabisari, haren propietateei –kaltegarriei zein onuragarriei– haren eraginei eta hura kontsumitzetik etor litezkeen balizko arriskuei edo kalteei buruz, bai eta zigarreten ordeko administrazio-moduei buruz ere.

**24. artikulua.** Elkarteko pertsonen betebeharra da kanabisaren kontsumo arduratsua egitea, bai eta klubekoak ez diren pertsonen kanabisaren kontsumoaren gaineko propaganda, publizitatea edo sustapena egin dakien ekiditea ere.

Elkarteko kide bakoitzak sinatutako zinpeko deklarazio baten bidez ezarriko da klubean erositako substantzien erabilera arduragaberik edo legez kanpikorik ez egiteko konpromisoa.

Estatutuek edo barne araudiko bestelako arauak elkartetik iraitzeko arrazoi gisa jasoko dute betebeharrak horietako edozein ez betetzea; halatan, Zuzendaritza Batzordeak behar den salaketa jarriko du kasuan kasuko entitateetan, eta horrek ez dio elkarre horri inolako kalterik egingen.

**25. artikulua.** Elkarteko kideek ezin izanen dute kontsumitu elkarteak egun eta pertsona bakoitzeko ezarritako Cannabis sativa edo haren eratorrien edo estraktuen kantitatea baino kantitate handiagorik, arrisku prebentziorako neurrien arabera kalkulatuta eta pertsonako eta eguneko 10 gramoko muga gainditu gabe.

**26. artikulua.** Lankidetzaren printzipioa.

Espainiako Gobernuak lankidetzan jardunen du Estatuko, udaletako, nazioko eta nazioarteko gainerako administrazio eskudunekin edo/eta arriskuen prebentzioan eta kalteen gutxitzean eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako droga-politika batean sakontzean interesa dutenekin, eta ahaleginak egingen ditu lege honek babesten dituen eskubideen erabateko eraginkortasuna lortzeko, bai eta finkatzen diren osasun publikoko eta ingurumen-osasuneko helburuak ere.

**27. artikulua.** Zehapen araubidea.

Lege honen aplikazio-eremuarekin eta garapenearekin lotutako baimen administratiboetarako baldintzak eta betekizunak urratzearekin zerikusia duten arau-hausteak kasuan kasuko araudi sektorialaren arabera zehatuko dira.

**28. artikulua.** Espainiako Gobernuak sustatuko du lege honen jarraipenerako eta garapenerako mahai bat sor dadila. Mahai hori osasun publikoaren, justiziaren eta herritarren segurtasunaren arloetan eskudunak diren departamentuen ordezkariak, entitate espezializatuen ordezkariak eta kanabis-elkarteen ordezkariak duten federazioen ordezkariak osatuko dute, eta lege honen aplikazioa eta eraginak ebaluatuko dituzte, eta legea garatzeko erregelamendua prestatuko dute.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Administrazio publikoek sustatuko dute lankidetzako organoak sortzea beren eta kanabis-konsumitzaileen klu-

ben edo horien ordezkari-entitateen artean, honako xede hauetarako: informazioa trukatzeko estatistika-ondorioetarako, osasun-kontrolerako neurriak ezartzea, prebentzio-planak prestatzen parte hartzea eta kontsumo arduratsuari nahiz kontsumoak dakartzan arriskuei edo kanabisa kontsumitzaiekin lotutako beste edozein gairi buruzko prestakuntza eskaintzea.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Kanabis-konsumitzaileen klubek beraiek elkartzeko entitateak sortzen ahalko dituzte, interes komunak lortzeko nahiz administrazio publikoen eta gizarte osoaren aurrean haien ordezkari gisa jarduteko.

## Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 7an egindako bileran, Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaira bidaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Agintzen da aipatu lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena

#### ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua xedatzen du botere publikoek, pentsio egoki eta aldian-aldian eguneratuen bitartez, ekonomia-askitasuna bermatuko dietela herritarrei zahartzaroan. Prestazio publikoen sistema egoki bat, pertsonen beharrezko erantzuten diona, bereziki baldintza gutxiago dutenen kasuan, funtsezko osagaia da Konstituzioak berak lehen artikuluan aldarrikatzen duena bezalako estatu sozial batean.

Baina gaur egun agindu horrek duen testua, ikusi denez, ez da behar adinako bermea pentsio-sistema publiko batek, funtsean Gizarte Segurantzaren hezuramiturik, herritarrak ekonomia-askitasunaren printzipioaren arabera arta ditzan. Ez da

behar adinako bermea ere pentsioen aldi aldiko eguneraketak zerikusia izan dezan aipatu printzipioarekin. Zalantzarik gabe, konstituziogilea pentsatzen ari zen, aipatu agindua idatzi zuenean, pentsioen zenbatekoa egokitu egin beharko litzatekeela bizitzaren kostuaren igoerara, ekidite aldera pentsio bat, hasiera batean bere onuradunen ekonomia-askitasuna bermatzeko zenbateko egokia zuena, pentsio eskas bihurtzea denboraren iragate hutsarengatik eta prezioen igoerarengatik.

Zoritxarrez, konstituziogileak ekidin nahi zuena errealitate bihurtu da.

Aplikatzekoa den legeriak Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Errebalorizazio Indize bat ezarri du, zeinak, aldian behin eguneratzeko printzipiora formalki doitzen bada ere, azken finean iruzur egiten baitio ekonomia-askitasunaren printzipioari. Bizitzaren kostuaren aldaketa, kontsumoko prezioen indize gisa zehaztua, ez da erabiltzen eguneratze-irizpide gisa (Gizarte Segurantzari buruz Lanaren Nazioarteko Erakundearen eginiko 102. Hitzarmeneko 65. artikuluan bezala), baizik eta gehieneko muga gisa, ehuneko 0,25eko errebalorizazio bat aplikatuz izaera arruntarekin. Horrek praktikan dakarrena da pentsiodunen eros-ahalmenaren etengabeko galera. Eta, Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen zenbatekoak ikusirik, eros-ahalmenaren galera horrekin are larriagoa gertatzen da pentsiodun askoren egoera, beren beharrezko estaltzeko bermerik ez dutelako, gizarte-bazterketaren eta pobreziaren arriskura iritsiz.

Are maltzurragoa da, Konstituzioaren testuaren logikaren aurka doalako, etengabe iradokitzea hirugarren adinekoen askitasun ekonomikoa lortu behar dela aurrezki pribatuaren eta pentsio gehigarrien sistema pribatuen bidez, eta ez botere publikoen jardunaren bidez, Konstituzioaren 9. eta 50. artikuluek espresuki aipatzen duten bezala.

Aipatu printzipioen babes konstituzionala sendotzeko, bidezko da testu berri bat ematea 50. artikuluari, helburua izanik pentsio egokien sistema publiko bat bermatzea, haien eros-ahalmena galtzera kondenaturik egon gabe.

**Artikulu bakarra.** Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratuko da idatzita:

“50. artikulua.

Botere publikoek, gutxienez ere bizitzaren kostuaren igoeraren arabera urtero eguneratutako pentsio publiko egokien bitartez, zahartzaroko ekonomia-askitasuna bermatuko diete herritarrei. Era berean, familiako betebeharrak zein diren ere, haien ongizatea sustatuko dute gizarte-zerbitzuen sistema publiko baten bidez, haien osasun-, etxebizitza-, kultura- eta aisialdi-arazo berezietz arduratuko dena”.

### **Xedapen gehigarria.**

Arau honek indarra hartzen duenean, Gizarte Segurantzako pentsio-sistemako pentsioak automatikoki eguneratuta eta handituta geldituko dira, Jasangarritasun Faktorea eta Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Errebalorizazio Indizea arautzen dituen abenduaren 23ko 23/2013 Legea aplikatzearen ondorioz izandako eros-ahalmeneren galeraren neurrian.

### **Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe uzten dira maila bereko edo apalagoko arau guztiak, arau honetan ezarritakoari aurka egiten dioten heinean.

Zehazki, indarrik gabe uzten da 23/2013 Legea, abenduaren 23koa, zeinak arautzen baititu Jasangarritasun Faktorea eta Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Errebalorizazio Indizea.

### **Azken xedapena.**

Konstituzioaren aldaketa hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 7an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzare bat sor dezan, horientzako erregelamendu organiko bat taxutu dezan eta Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Hezkuntza Bereziko ikastetxeen arteko koordinazio- eta lankidetzare bat sor dezan, desgaitasun mota desberdinak dituzten ikasleei arreta eta prestakuntza ematen dieten profesionalek baliabideak, esperientziak, berrikuntzako proiektuak, metodologiak eta abar partekatzeko aldera.

2. On line plataforma bat sor dezan partekatutako material eta baliabideak eduki, profesionalen lana sarean erraztu eta profesionalen elkarrizketa eta foro bat ezartze aldera.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan garatzen diren Helduarora igarotzeko programak arautu ditzan, halako moduz non programa horietan sartzeko adina nola haien iraupena Lanbide Heziketa Bereziko zikloetako berberak izanen diren.

4. Hezkuntza Bereziko ikastetxeekin batera erregelamendu organiko berri bat sor dezan, ikastetxe horien beharrian berezietara egokiturik, non lanbide-profilek erantzunen dieten ikasleen beharrianei, hezkuntza, gizarte zein osasun arloetan.

5. 1990ko irailaren 18ko Aginduan (1990ko urriaren 2ko 236. Estatuko Aldizkari Ofiziala) jasotako profesional eta ikasleen arteko proportzioak ez erabiltzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza bereziko ikastetxe eta unitateetan giza baliabideak erabakitzeko unean, eta horretarako arau-proposamen berri bat eguneratu eta hedatzea, zeinak proposamen pedagogikoaren eta ikasleen egokitzeko trebetasunaren artean sorturiko hezkuntza beharrak izanen baitu oinarritzko erreferente gisa, eta ez diagnostikoa".

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin koordina dezan Lizarrako hirian turismoko paradore nazional bat egiteko proiektuaren berrebaluazioa.**

### *GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2018ko ekainaren 5ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin koordina dezan Lizarrako hirian turismoko paradore nazional bat egiteko proiektuaren berrebaluazioa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Espainiako Gobernuarekin koordina dezan, ahalik eta lasterren, Lizarrako hirian turismoko paradore nazional bat egiteko proiektuaren berrebaluazioa, hura kokatzeko Lizarran bertan dauden aukerak aztertuz, edo bestela lehenagotik ere

aztertu zen aukera, Iratxeko Santa María la Real monasterioan kokatzearena.

– Dauden aukerak kontrasta ditzan erakunde eskudunekin, Lizarrako Udala barne, ostatu hori egingarri bihurtzeko lankidetzak akordioak eguneratuz.

– Erakunde eskudunekin lan egin dezan, Iratxeko monasterioak gaur egun alderdi juridikotik eta ondarearen aldetik duen egoerari behin betiko konponbide bat bilatzeko, xedea izanik haren arkitectura ondarea balorizatzea eta behin betiko konponbidea ematea “Julio Caro Baroja” Nafarroako Museo Etnologikoaren kokapenari.

– Helburu gisa programatu dezan hura irekitzea 2021eko urte Xacobeorako”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Etxauzia frantziar elkarteari 80.000 euro oparitzeko aurreikuspena.**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 7an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Etxauzia frantziar elkarteari 80.000 euro oparitzeko aurreikuspena. Mozioa Juan Luis

Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu zuen eta 2018ko ekainaren 5eko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzari eskualda diezazkion enplegu arloko eskumenak eta, horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua Garapen Ekonomikoaren mende egotera igaro dadin.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela honako mozio hau erretiratu dela: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzari eskualda diezazkion enplegu arloko eskumenak eta, horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua Garapen Ekonomikoaren mende egotera igaro

dadin. Mozioa Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu zuen eta 2016ko irailaren 30eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

